

ARRIKRUTZ



Gaur egungo lehoiak Afrikako sabanarekin lotzen ditugun arren, Pleistozenoan zehar Eurasian eta Ipar Amerikan ere bizi izan ziren. Europan aurkitutako fosil zaharrenek zazpirehun mila urte dituzte. Lehoi eurasiar hau egungoa baino handiagoa zen eta “haitzuloetako lehoia” (*Panthera spelaea*) izenaz ezagutzen den espezieari dagokio, glaziazio nahiz glaziazioarteko ekosistemetan bizi izan zena

Oñatiko Arrikruzko koban penintsulako lehoiaren eskeleto osoena berreskuratu da, garai hartako zantzu paregabea dena.



Aunque hoy en día asociamos los leones a la sabana africana, durante el Pleistoceno también habitaron Eurasia y Norteamérica. En Europa, los fósiles de león más antiguos tienen setecientos mil años. Estos leones euroasiáticos, más grandes que los actuales, pertenecían a la especie conocida como “león de las cavernas” (*Panthera spelaea*) y ocuparon diferentes ecosistemas tanto en momentos glaciares como interglaciares.

En la cueva de Arrikruz de Oñati, se ha recuperado el esqueleto de león de las cavernas más completo de la península ibérica.

ARRIKRUTZ

Argitalpenaren Zuzendaria: Juantxo Agirre-Mauleon

Edukiaren koordinazioa: Eider Conde, Aranzadiko Komunikazio Saila

Testuak: Arantza Aranburu, Juan Luis Arsuaga, Martin Arriolabengoa, Ikerne Altube,
Arantxa Bodego, Asier Gomez, Joseba Intxausti, Iñaki Zubeldia, Aloña Mendi Espeleologia Taldea.

Maketazioak: Tamtam S.L.

Azala: Marta Martola

Imprimaketa: Leitzaran Grafikak, S.L.

Itzulpenak: Asier Olazabal

Aranzadi Bilduma 03

ISBN 978-84-947343-9-7

ISSN 2255-0437

L.G. / D.L. SS 1215-2018

ARANZADI zientzia elkarte

Zorroagaina 11

20014 Donostia - San Sebastián

Tel.: 943 466142 • Fax: 943 455811

e-mail: idadzkaritza@aranzadi.eus

www.aranzadi.eus

Eskerrak

Jesus Altuna, Arantzazuko frantzizkotarrak. Milagros Algaba, Aurora Martín, Rodrigo Alonso, Marta Martola, Carlos Olaetxea, Sonia San José, María Quiñones, Roberto Pellitero, Ana Belén Conde, Museo de la Evolución Humana, Fototeca Kutxa, Pedro Ruiz de Arcaute, Junta de Castilla y León.

ARRIKRUTZ

Arrikruzko lehoia
El león de Arrikruz

Oñati
2018



aranzadi
zientzia elkarte

SOCIEDAD DE CIENCIAS
SCIENCE SOCIETY
SOCIÉTÉ DE SCIENCES

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Kultura, Turismo, Goierria
eta Kirol Departamentua



ORAIN
KULTURA

STM
San Telmo Museoa



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN



donostia
kultura

| G | O | R | D | A | I | L | U | A |

Gipuzkoako Ondare Bildumen Zentroa
Centro de Colecciones Patrimoniales de Gipuzkoa



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAIALA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



OÑATI
dabilen herria



Aloña Mendi
Espeleologia
Taldea

ARRIKRUTZ
ORAIN KULTURA

AURKIBIDEA

orr.

00 Aurkezpena: LEHOIAK Oñatin	06
01 Oñati.....	10
02 Arantzazu euskal kulturaren sorlekua.....	14
03 Iluntasunean galduak.....	24
04 Geologia: Itsaso tropikalak.....	40
05 Leize-ikerlariak	48
06 Arrikruzko lehoia	72
07 Guztien ondarea: Gure lurra, gure paisaia, gure proiektua.....	92
ARRIKRUTZ. Versión en castellano.....	111
Bibliografia	168

O

Aurkezpena

“Lehoiak Oñatin? Bai, Europa osoan bezalaxe. Gaur egun Afrikan dauden bezalako lehoiak? Zehazki esanda, ez: handiagoak eta horrenbesteko kalparrik gabeak”.



Gizaki-lehoia, mamut baten marfilarekin egindako eskultura.
40.000 BP. Ulm Museum (Deutschland).

LEHOIAK Oñatin

Juan Luis Arsuaga

Paleontologian katedratikoa. Madrilgo Konplutense Unibertsitatea.
Zuzendari zientifikoa Burgoseko Giza Eboluzioaren Museoa.
Atapuercako zuzendarietako bat.
Aranzadi Zientzia Elkarteko Munibe aldizkariaren zuzendaria.

Lehoiak Oñatin? Bai, Europa osoan bezalaxe. Gaur egun Afrikan dauden bezalako lehoiak? Zehazki esanda, ez: handiagoak eta horrenbesteko kalparrik gabeak. Haitzuloetako lehoiak? Deskribapen egokia da, haien eskeletoak haitzuloetan baitaude -besteak beste Arrikrutzen-, baina ez ziren negua haitzuloetan lotan igarotzen zuten hartzak *bezain* haitzuloetakoak. Gainera, plantigrado horiek izugarriak ziren; duela lau egun arte Nafarroako Pirinioetan, hemen alboan, paseatzen zebiltzan hartz arreak baino askoz handiagoak.

Azken glaziazioaren garaiko Europako ekosistemak ikusgarriak ziren megafaunari dagokionez, eta dokumentaletan ikusten ditugun Afrikako parke nazional handien inolako inbidiarik ez zuten izan behar: errinozero iletuak, mamutak (iletuak horiek ere, noski; hotz handia egiten zuen eta, horregatik, belarri txikiak zituzten; belarriak oso sentiberak dira hotzarekiko, denok dakigun moduan), bisonteak, uroak (zelai berdeetan larrean dabiltzan haien ondorengo zezen etxetiarrak baino askoz handiagoak), zaldiak, buru bikaineko oreinak, adaje i-ka-ra-ga-rri handiak (izugarritzko palak) zituzten megaceroak, elur-oreinak, idi musketadunak, saiga antilopeak estepak

zeuden tokietan... Eta horrenbesteko biomasarekin, horrenbeste haragirekin, haien atzetik zebiltzan haragijale ugari zeuden: lehoiak, lehoinabarrak, katamotzak, hartzak, otsoak, jatunak eta hiena pikartak. Lehoi-taldeak, otso-taldeak eta hiena-taldeak esan nahi dut, guztiak goseak amorratzen.

Ondo ezagutzen ditugu animalia horiek. Batzuk ez dira desagertu. Beste batzuk bai: mamuta, errinozeroa, megaceroa, uroa, haitzuloetako hartza eta haitzuloetako lehoia; baina haien hezurak aurkitu dira, baita Siberiako eta Alaskako zoru izoztuetan haien gorputzak kontserbatuta ere. Eta ikus daitezke, oraindik bizirik, historiaurreko gizon eta emakumeek egindako margoetan.

Oso ondo ezagutu zituzten haiek guztiak neandertalek, baita ondoren etorri ziren CROMAGNONEK, gutarrak ere. Jateko, ahal zuten modu guztietan ehizatzen zituzten: zaratarekin, harriekin edo lantzekin uxatuta; edo suarekin sukaldatutako janaria... beraiek baziren. Baliteke neandertalek haitzuloetako lehoien istorioak kontatzea, edo soilik errespetuz eta zentzuzko distantzia batetik begiratzea. Cromagnonen kontakizunetako, abestietako eta zeremonietako protagonistak ziren, ez daukat zalantzarik. Txirulen eta danborren soinuan dantzatuko zituzten hartzaren, mamutaren, errinozeroaren, bisontearen eta lehoiaren dantzak. Suaren inguruan hitz egingo zuten haiei buruz, begirunez: “Lehoi Jauna, Lehoi Anderea”.

Eta hori guztia hementxe bertan gertatu zen. Orain gauden tokian.

Ondo begiratu (orain, bereziki umeei zuzentzen natzaie) Arrikruzko lehoiaren eskeletoa. Izan daiteke haitzuloetako lehoirik berriz ez ikustea.

01

Oñati

“Oñatiko bailara gure lurraldean gertatu den aurkikuntza arkeologiko garrantzitsuenetako baten leku bihurtu zen”.



Oñatiko udaletxea. Barroko, rokoko. Martín de Carrera 1764.

Oñati

Oñatiko herria Euskal Herriko isurialde atlantikoan kokatuta dago, Deba ibaiaren goi-ibarrean, Aizkorri eta Aloña mendilerroen behealdean. Hain zuzen ere, mendilerro horietako gailurrek osatzen dute isurialde mediterraneoaren eta atlantikoaren arteko banalerroa. Herrigunea itsas mailatik 231 m-ra dago, eta Artzanburu (1.368 m) da udalerriko mendirik garaiena.



Oñati Gipuzkoako udalerririk zabalena da, 108,2 km²-ko azalera baitauka, eta Deba-goiena eskualdea osatzen du, besteak beste, Bergara, Arrasate eta Antzuolarekin batera. Gasteiztik 52 km-ra dago, Bilbotik 64 km-ra, Donostiatik 73 km-ra eta Iruñetik 101 km-ra. 2016an 11.348 biztanle zituen, eta jarduera ekonomiko nagusia industria zuen.

Gebaratarren leinuak baldintzatu zuen haren bilakaera historikoa Erdi Arotik: XV. mendean Oñatiko Konderria eratu zuen eta 1845 arte egon zen indarrean, udalerria Gipuzkoako probintziara sartu zen arte.

Gertaera historikoen artean nabarmentzekoa da 1533an Sancti Spiritus Unibertsitatea, Euskal Herriko lehena, sortu izana; haren eraikina Errenazimentuko arkitekturaren adierazle onenetakoa da. 1918an eratu zen Oñatin Eusko Ikaskuntza, kultura zientifikoa sustatzea eta euskal unibertsitatea sortzea helburu zituena.

700 m-ko altuerara dagoen Arantzazuko monasterioak 500 urtetik gora daramatza erreferentziazko erlijio-, heziketa- eta debozio-gune izaten, eta XX. mendearen bigarren erdian kultura eta artearen sortzailea, eta euskararen eraberritzaile eta sustatzailea izan zen.

Oñatiko haran zabala, haitzulo eta leize kontaezinez zulatutako kareharrizko muinoz eta mendiz inguratua, hango tradizio kultural eta zientifikoarekin batera, leku ezin hobea izan zen Euskal Herriko historiaurrearen aurkikuntzarik zirrargarrienetakoa gertatzeko: Arrikruzko lehoia.

Argitalpen honek lehoiaren aztarnen aurkikuntza-prozesu osoaren eta aurkitu zeneko ekosistema kultural eta zientifikoaren isla izan nahi du.



02

Arantzazu euskal kulturaren sorlekua

*“Arantzazuren jabe da Euskal Herria,
denen artean egin eta bizitakoa delako
eta etorkizunean Santutegia beretzat
nahiko duelako.”*



Arantzazuko Andre Mariaren irudia.

Joseba Intxausti

Idazlea eta euskaltzaina

Arantzazu, herriak izan dion atxikimenduz eta historiak erakutsi duenaren arabera, Santutegia da, hau da, erlijioetako eta Kristautasuneko beste hainbat “leku sakratu” bezala sinestunek halakotzat hautatu, ulertu eta bizi izan duten lekua.




Arantzazu gaur egun. (Oñatiko Udala).

Erlijioen Antropologiak horren guztiaren datu bilketa eta beroriekiko teorizazioa eskaintzen dizkigu gaur egun. Ez da, noski, Kristautasunean eta Euskal Herrian horrelako bakarra; baina bai gure artean indarrean eta indar betean ere 500en bat urte eta gehiagotan bizirik ageri zaigun Santutegia.

Arantzazuren hastapenak eta ondoko hamarkada eta mendeak gertakari erlijioso soziala ere badira, eta beren historiografia izan dute, XVI. mendetik hona, E. Garibairekin hasi (1571), G. Gamarrarekin jarraitu (1648) eta J. A. Lizarraldeganaino (1950).

Santutegiaren XX. mendeko iragan hurbila ere dagoeneko jasota dago gaur hainbat argitalpenetan, inoiz Santutegiko bertako fraideek kontaturik (historiografia, 2001; lekukotasun zuzenak, 2003) eta artxiboek eta ikerkuntzek erakutsi dizkiguten albisteetatik jasota.

Arantzazu fedezko eraikuntza fisiko espirituala izan da, sute eta ezbehar historikoek behin eta berriz jo duten Santutegia, hala suertatu zelako edo berriazko ekimenez (1553, 1622, 1834). Bere jarraipen historikoan Arantzazuk ezaugarri propioak izan ditu, balio erlijioso eta zibilak, Euskal Herriko Historia orokorrean txertatuta.



Aurreko elizaren eraikinak, basilika berria egin baino lehenago.

Historia horretan, lehenik Arantzazuko erromes fededunen ahalegina azpimarratu behar da, presentzia horixe baitago batez ere Santutegiaren jatorrian eta jarraipenean. Sinestun horrentzat, Andre Mariaren irudia eta hori bera baino ere irmoago, “Andrea Mariaren *lekua*” da Arantzazu. Berrikitan, betiko Naturaren balio frantziskotarrak ere indar ohartuagoa hartu du Arantzazun.


Sinestunen testigantza erlijiosoa modu ezberdinetan baieztatuko da Arantzazun ere: erromesaldiekin, otoitzean, penitentzian, fede-gogoeta pertsonalean, liturgia ofizialean, bakarka eta taldean, bidean bezala Santutegiko hitzorduan, inguruko izadian bertan edo norberaren biziera fede argitara ekarriz. Betiere Naturaren erraietan bizi dela (gogora Gandiaga olerkariaren ekoizpena: *Elorri*).

Bizi-otoitzaren bilakaera horretan lagungarriak izan ziren erromesentzat lehen orduko Ermita apala, laster etorriko zen Eliza, azkenik XX. mendean eraiki den Basilika, dorretik harlandu zorrotzez transzendentziarako talaia izan nahi duena.

Ahalegin guztien sustatzaile eta sostengu izan dira beti, alde batetik erromes-herria bera, eta, bigarren, Fraide Komunitatea, ez Santutegian bertako presentziarekin bakarrik, baita Santutegitik herrietara heldu izan diren fraide eskale, sermolari eta idazleekin ere. Ezin dira ahaztu berauen eraginez herrietan sortu ziren Hirugarren Ordenako Anaiarte laikoak edo Arantzazuko Kofradia berritua (1917...).

Amerika urrun zegoen, baina hainbat hiritatik Arantzazura begira zeuden eusko-amerikarrak, Mexiko hiria edo Limatik, esate baterako. Han urruneko lurraldeetan Santutegiaren albistea iraunarazteko Ermita-kaperetako ikonografia arantzazuarra sortu zen, eta urteroko bederatziurren eta ospakizunek balio izan zuten Santutegiko tradizioari eusteko.

Aro Modernoan frantziskotarren nazioartekotasuna biziki azkarra zen, eta horrek gertutik lagundu zuen Arantzazuren erbesteko garapena. Gogora dezagun Luzuriaga arabarraren Paranympo Celeste handia, lehenik Amerikan kaleratua eta Donostian berriro (Mexiko eta Donostia, 1690).




Luzuriagaren Paranympo Celeste. (Mexiko 1686).

Horrelakoetan, mirarien kontaketak lekurik behinena izan zuen, noski. Arantzazuko klausuroan ikus daiteke oraindik hori; gure ikonografia kristauaren parte da berori. Testua eta irudia elkarrekin joan dira Arantzazun, lehen mendeetatik XXI. menderaino.

Zalantzarik gabe, erreparatzekoa izan da, zinez, XX.eko historia, eraikin berriekin; baina balio handiagoa du fraide-komunitatearenak Santutegian bertan ez ezik, izen bereko Probintzia erlijiosoan ere hainbeste fraiderekin: 1960ko hamarkadan 752 fraide izateraino heldu zen "Arantzazuko Probintzia" hori.

Fraide-ındarrak ahulduz doazen arren (1970...), guztion memorian eta begi-bistan emana geratuko dira Santutegi berri-berrituaren izaera eta etorkizuneko oroitzapena.

Dagoeneko, Arantzazuren jabe da Euskal Herria, denen artean egin eta bizitakoa delako, eta etorkizunean Santutegia beretzat nahiko duelako: bertan daude Andre Mariaren irudia, herritarren otoitza, fraideen espiritualtasuna, Sáenz de Oizaren dorreak, Oteizaren Apostoluak, L. Muñozen erretaula, eta langile eta otoizlari anitzen ahotsa.



Arantzazu Ama Birjiniaren estampa. (XIX. mendea).




Goian seminarista gazteak. 1953.
(J. Elosegui).

Behean prozesioan Arantzazura
doazen emakume gazteak.
(Kontzeju aldizkaria).



"Bai Euskarari"
(Nestor Basterretxea
1978).

Sept Provinces Basques.
La Délimitation de l'Euscara en Dialectes.
(Louis Lucien Bonaparte. 1868).




Euskara batuaren sorrera.
Euskaltzaindiaren batzarra.
(Arantzazu, 1968).

1968



Jorge Oteiza eskultoreak Arantzazuko basilika berriaren fatxadan apostoluen frisoa eta pietatea egin zituen.
(argazkia J. Urretabizkaia, 2004)



03

Iluntasunean galduak

*“Minutuak eternoak egin ziren,
eta pentsatu genuen gure bizitza
hantxe buka zitekeela, familiakoek
agian gehiago ez gintuztela ikusiko”*



Jesus Nazabalen dei-adarra.

Iñaki Zubeldia Otegi


Pedagogoa, idazlea eta leize-zalea

1966ko udazkena izango zen, urria edo azaroa seguru asko, baina data zehatzik ez du gorde nire memoriak. Fraideek “tarde de campo” deitzen zioten egun horietakoa zen, arratsalde osoa bakoitzak nahi zuen tokira joateko erabiltzen zuena. Arantzazuko seminarioan Teologia ikasten ari ginen, 20 urte inguruko gazteak, eta inguruetako mendi gehienak eta leize-zulo batzuk ezagutzen genituen.

Jesus Manuel Marotok eta nik, Iñaki Zubeldiak, Arrikruzko kobara joatea erabaki genuen arratsalde hartan. Lehendik ere ezagutzen genuen leize hori, baina ez bere osotasunean. “Maravillas” izeneko gela bai ezaguna zitzaigun eta inoiz Mezquita gelaraino ere iritsiak ginen. Baina planoetan azaltzen zen Aranzadi gela erraldoia, kobaren bukaeran ageri zena, ez genuen ezagutzen. Eta ikusitako Arrikruzko galeriak hain ederrak baziren, nolakoa ote zen planoek eskaintzen ziguten areto izugarri eta misteriotso hura?.

Horrela iritsi zen guk eskatu eta hainbeste aldiz amestu genuen arratsalde hura: sei ordu izango genituen koba barruan ibiltzeko eta Aranzadi gelaraino iristeko. Beste arratsalde batzuetan, ostegunetan, larunbatetan eta igandeetan, hiru orduko denbora libre izaten genuen mendira edo nahi genuen tokira joateko. Baina denbora horrek ez zuen ematen Aranzadi gelaraino iristeko.

Aurretik, Marotok eta biok hamasei zuzi prestatu genituen. Txapazko poto handi samarretan gorde genituen elizan sobratutako kandela muturrak. Potoaren azpian su eginda kandelak berotu eta argizari urtua lurrian jarrita geneuzkan periodikoen gainean zabaldu genuen. Hoztu baino lehen, azkar-azkar periodikoak bildu, punta batean soka, metxa gisa eta bestean makilatxo bat helduleku gisa jarri eta horrela osatu genituen hamasei zuziak. Zuzi bakoitzak ordubete irauten zuen gutxi gorabehera piztuta.





Eguna iritsi zenean, gelako mahaian zabal-
duta utzi nituen nik kobako planoak, eta lagu-
nei jakinarazi genien Arrikruzera gindoazela,
arratsaldeko zortziak arte, ordu horretan
koruan egon behar baikenuen kantuan. Bazkal
ondoren, bizkor-bizkor irten ginen motxile-
tan hamasei zuzi eta ogitarteko bana hartuta.
Oñatirantz zihoazen langile portuges batzuek
jaietsi gintuzten autoan, Arrikruz baserrien
pareraino, eguerdiko ordu bietan. Gure abituak
leize-zuloaren sarreran, harri gainean utzi, bu-
zoa jantzi eta kiroleko zapatila zahar batzuekin
sartu ginen leizean barrena.




Goian Iñaki Zubeldia gaztetan.
(I. Zubeldia Bilduma).
Behean seminarista
gazteak gurutz bidean.
(J. Elosegui, 1953).

Abenturazale gazteak espeleotemekin liluraturik eta lehoi hezurrekin topo egin

Barruko handitasunarekin txunditu, “Maravillas” izeneko baso miresgarriko edertasunak miretsi eta aurrera egin genuen, ia bi kilometro jadanik lurazpian. Baina orain kontuz gindoazen, toki batzuetan “zulo beltzak” azaldu baitzitzaizkigun lurrean.

Zulo horietan harria botatzen genuen eta behean hainbat metrotako sakoneran “putzunba!” ur putzuen hotsa entzuten zen. Gu kaskorik gabe, neoprenorik gabe (garai hartan seguru asko ez zen existitu ere egingo jantzi mota hori), sokarik gabe eta zuzi xume batzuekin gindoazen. Horietako zulo batean erortzeak berehalako heriotza ekarriko zigun, ezingo ginelako gorantz atera hormetako hezetetasunarekin irrist egingo genuelako eta putzuko ur hotzarekin hipotermiak joko gintuelako. Horrek denak eraman gintuen handik aurrera arreta handiangoarekin ibiltzera, gure zuziak eta begirada lurrean iltzatuta genituela. Eta horrela suertatu zen Aranzadi gelaraino iritsi ginela konturatu gabe gela handian geundela jadanik. Lurrera begira, zulo beltzen beldur, zeharkatu genuen gela osoa jakin gabe hainbeste amestu genuen gela erraldoi hura zapaltzen ari ginela. Gelaren bukaerara iristean horma izugarri handi eta zabal batekin egin genuen topo. Han ezin zen aurrera egin eta zuziak altxatu genituen gorantz. Zer zen hura!!! Harrizko horma izugarria, forma biribilduan, eta izugarrizko altueran altxatzen zen gure aurrean. Sabaia ez genuen ikusten gure argi kaxkarrekin eta gela erraldoi batean geundela konturatu ginen. “Hauxe da Aranzadi gela, iaufil!”, esan genion elkarri harriturik. Eta guretzat horma hura Aranzadi gelaren hasiera zen, hantxe konturatu baikinena gelan sartu ginela. Baina hura bukaera zen. Hementxe dago gure galeraren gakoa. Ez genekien nola heldu ginen toki hartaraino, galaria handi eta altuak, zulo estu eta okerrak, gela zabalak, pasadizo baxu eta arrastaka ibili beharrekoak... denetik pasatu baikenuen haraino joateko. Baina, jadanik Aranzadi areto izugarrian geunden eta ez ginen hantxe geratuko, guk hasiera zela uste genuen hartan.

Gela nolakoa zen eta handik aurrera zer zegoen ikusteko, horma biribildua inguratuz, aurrerantz joan ginen, ustez, gela handiaren bukaerarantz eta handik aurrera egon zitezkeen galerietarantz. Gora begiratzen genuen bi zuziak gorantz zuzenduz eta galeriaren handitasunaz ohartu ginen. Izugarria zen. Ehun bat metro luze, berrogeita hamar bat metro zabal eta altueran hogeita hamar bat metro tokirik altuenean. Aurrera egin genuen, leizean barrurago gindoazen ustetan eta bitartean atzerantz gentozen, lehen ibilitako tokirantz. Baina gu ez ginen jabetu. Pasadizo estu eta arriskutsu batean bideak gorantz egiten zuela ohartu ginen eta handik zuzendu genituen gure pausoak. Paraje eder batzuk topatu genituen han goian, Donatellok edo Berninik zizelkatutako erre-
taula antzeko artelan ikusgarri bat geneukalarik begien aurrean.



Gero Juan San Martinen eta Felix Ruiz de Arcautereren planoetan ageri zen azken gelatxora jaitsi ginen. Han bukatzen zen alde hartako kobaren galeria sistema. Guk nonbaitetik lortu genuen bi espeleologo horien planoak eta huraxe erabiltzen genuen kontsultak egiteko. Baina kasu honetan akats txiki bat egin zuten bi aditu ausart eta adoretzu haiek. Gela horretan, ertz batean, estalaktita mordo bat ia lurreraino jaisten baitzen, gela han bukatzen zela itxura ematen zutenak. Baina gu gazteak ginen eta estalaktiten azpitik zuzi bat sartu eta ikusi genuen han, bestaldean, galeria zurixka eder bat zabaltzen zela, aurrera joateko bidea ematen zuena.

—E, Zubeldia, hi argala hago eta sar hadi hortik —esan zidan Marotok.

Lurra satorren antzera atzaparrekin kendu eta pasadizo estu bat egin nuen estalaktiten azpitik. Handik pasatzerakoan estalaktiten ziztadak sentitzen nituen bizkarrean, baina aurrera egin nuen. Bestaldera iritsitakoan galeria eder eta zabal samar bat topatu nuen aurrean.

—Maroto, etorri, galeria polit bat zegok eta hemen —esan nion nik.

Lur gehiago kendu atzaparrekin, Maroto potolo samarra baitzen, eta hura ere pasatu zen leize-zuloko galeria berrira. Inor ibili gabeko tokia zirudien eta Felix Ruiz de Arcautereren planoek ere horixe adierazten zuten, galeria berri hau eta hortik aurrerako zokoak ez baitziren han azaltzen.

Berrogei bat metro aurrera eginda egoitza sakratua zirudien toki batera heldu ginen, hara sartzeko aldapatxo bat igo eta ate biribil antzeko zulo bat baitzegoen. Gela txiki hartako lurrean zulo biribilduren bat edo beste zegoen, hartzek lo-zorrorako erabiltzen zituzten ohandzeak nonbait. Makarroi izeneko estalaktita mehe zuri ugari zegoen gelaren albo





batean, ilaran ipinita bezala, ur-tanta beheko aho txikian zutela. Eta handik behera, ur-jauzi baten antzera, estalagmita kolada bat erortzen zen hiru edo lau metroan. Goitik argia bota eta lurtean estalagmita geruza distiratsu bat nabari zitekeen, lentejuelaz betea balego bezala. Distira horrek erakarrita behera jaisteko gogoia piztu zitzaigun. Horretarako, lurretik metro eta hogeita bat zentimetrora zulo luzeska bat zegoen harritzko horman, hogeita hamar bat zentimetroko altuera zuena eta handik behera jaitsi zitekeela ematen zuen. Eta horixe egin genuen. Leihu estu antzeko hartatik pasatu arrastaka eta aldapan behera joan ginen ipurdi gainean, ez irristatzeko. Gero salto bat eman eta beheko gelan geunden jadanik. Bi estalagmita zuri zeuden lurtean, distiraz beteriko zoru estalagmitikoaren gainean. Gela goikoa baino txikiagoa zen oraindik. Arakatu genuen pixka bat eta txoko ezkutu batean, ur-jauziaren antza zuen kolada estalagmitikoaren oinean piztitzar baten hezurdura topatu genuen zoruan luze-luze. Zirrara eragin zigun lehen unean, baina pentsatu genuen leizeetako hartzen baten hezurdura izango zela, Aizkirriko koban eta beste toki batzuetan *Ursus spelaeus* izeneko hartzaren hezurak topatu baitziren lehenago. Bestetik guk ez genekien orduan hemen, Euskal Herrian, *Panthera spelaea* edo leizeetako lehoirik bizi izan zenik. Horregatik leizeetako hartza uste genuen hura miresten egon ginen pixka batean eta kontratatu ginen arratsaldeko seiak hamar gutxi zirela.



Arrikruzko lehoiaren erreplika. (2007).

Iluntasun eta isiltasun infinituan galdurik

Zortzietarako Arantzazun egon behar genuen koruan kantatzen. Beraz, bizkor asko ekin genion itzulerako bideari. Gure buruak uste zuen bezala Aranzadi gelaraino jaitsi ginen azkar-azkar, horma handi hartatik irteteko. Baina horma handi hartara heldutakoan, ezkererantz eta eskuinerantz begiratu eta ohartu ginen han ez zegoela inolako irteerarik.

“Nola, arraio, da posible!”, pentsatu genuen. “Hemen konturatu gara Aranzadi gelan sartu garela, beraz, hemen behar du irteera ere”, esaten genion elkarri Marotok eta biok. Baina jadanik jakitun ginen galduta geundela leize-zuloko hiru kilometro inguruko sakoneran.

Oso urduri jarri ginen, dardarka, izerdi hotza gorputzean eta izua gure izaera osoaren jabe. Hara eta hona ibili ginen horma izugarriaren oinetan, pasadizoren bat topatzeko itxaropenetan, baina han ez genuen irteerako pasabiderik topatu. Lasaitzen ahalegindu ginen. Otarteko erdia oraindik gordeta genuena jan, eta hantxe bertan lurlean etzanda gelditzea erabaki genuen, argiak itzalita (gero nolabait konturatzen baginen nondik zen irteera, argiak ahituta egon ez zitezen). Gure bihotza taupaka ari zen zaldi ero bat bezala. Gela erraldoi hartako iluntasunak eta isiltasunak jan egiten gintuen, ez gauza ginela sinetsarazi. Noizean behin sabaitik erortzen ziren ur-tantoek “txip-txop”, “tin-ton”, “trop-trop”... hots berri eta desberdinak sortzen zituzten, lurlean zegoen ur-putzuaren arabera, eta ilunpe hark, isiltasun absolutu hark eta ur-tantoen hotsak are eta fantasmagorikoagoa egiten zuen han barruko gure ezinegona eta egonezina. Hogei minuturako zutik ginen berriz, dardarka, hotzaren eraginez, koban 9º C-ko temperatura iraunkorra egoten baita. Berrito hara eta hona ibili ginen irteeraren bila, baina ez genuen ezer topatu. Etzanda jarri, beste ordu erdi bat pasatu eta bigarren altxa-aldi honetan topatu genuen horma erraldoiaren ezkerreko muturrean, lurlean

beherantz zihoan aldapa antzeko bat. Handik arrastaka aurrera eginez, hogeitabost hogeitahamar zentimetroko pasadizo estu-estu bat topatu genuen Larraiotz galeriara ematen zuena.

“Hara!”, pentsatu genuen, “azaldu da guk hainbeste irrikatzen genuen pasadizoa, leize-zuloaren irteerarentz eramango gaituena”. Baina galeria hura hirutan banatzen zen: bat, gorantz zihoan tximinia itsu bat, bost metrora ixten zena; bigarren galeriatxoa, luzeena (berrogei bat metro), eroritako harri handiz estalita zegoena eta aurrean itxi egiten zena; eta hirugarrena hamabost bat metrokoa, hau ere lur-jauzi antzeko zerbaitek eroritako harri handiz ixten zuena. Beraz, handik ere ez geneukan irteerarik. “Gu barruan ginen bitartean, luizi malapartaturen bat izan ote da hemen barruan?”, iritsi ginen pentsatzera.

Berriro Aranzadi gela handiko gure ohantzera joan ginen etzatera, Larraiotz galerian geratuz gero gure erreskatatzaile posibleen oihurik edo hotsik ez baikenuen entzungo.

Eta orduak bata bestearen atzetik pasatzen joan ziren mantso eta geldi, zazpiak, zortziak, bederatziak, hamarrek... Tarte horretan, Arantzazun gure ikaskideak eta beste fraideak konturatu behar zuten gu ez ginela kobatik itzuli eta zerbait arraroa edo, agian, larria gertatzen zitzaigula pentsatu behar zuten. Eta horrek eramango zituen erreskate lanak antolatzen. Baina gaueko hamaiketan inor ez zen ageri eta pentsatu genuen ezin zirela gureganaino iritsi. Hamaikak inguru izango ziren haluzinazioekin hasi ginenean:

—Hi, Zubeldia, entzuten al duk kamioi hori... buurrrumm... —esan zidan Marotok.

Nik belarria adi-adi jarri eta ez nuen ezer entzuten:

—Hor ez zegok ezer, Maroto, nik ez diat ezer entzuten... —erantzun nion.

Handik pixka batera nik ardien beee negartiak eta ezkila hotsa “tilin-tilin” entzuten nituen...

—E, Maroto, entzuten al dituk ezkila horiek eta ardien beee-ak —bota nion nik.

Marotok belarriak adi jarri eta honela erantzun zidan:

—Hor ez zegok ezer, moteil... Hire haluzinazioak izango dituk...

Horrela egon ginen hogeit hamar minutu ahots arraroak entzuten, eta gero pasatu egin zen fase hori.

Eta ezinegon zalantzati hartan iraun genuen beste zazpi ordu oraindik, pentsatuz gureganaino ezin zirela heldu Jesus Nazabal eta konpainia eta, agian, gazteak izanik ere, gure hezurak han utzi beharko genituela. Minutuak eternoak egiten dira horrela zaudenean eta pentsatzen duzu zure bizitza hantxe buka daitekeela, familiakoek agian gehiago ez zaituztela ikusiko...

Eta goizeko bost eta erdiak aldera, gure itxaropena beherantz zihoanean adar-hots salbatzailea entzun genuen guretzat leize-zuloaren barrualdea zela uste genuen aldetik, hau da, guk irtenbidea egon behar zuela uste genuen kontrako aldetik.

—Hara, bazetoztek gu salbatzera! —esan genion elkarri eta izugarrizko poza sentitu genuen gure bihotz penatuetan, salto izugarri bat emanez. Oihuka hasi ginen “eeee-hhh”, “hemen gaudeee”... eta argi izpi batzuk ikusi genituen Aranzadi gelarako bidean urruti samar.

Gure erreskatatzaileak ere oihuka hasi ziren eta Marotok eta biok Aranzadi gelako 100 metro lisoak Usain Bolt-ek baino azkarrago zeharkatu genituela uste dut gure lagun beseoetan erortzeko. Une hau ez dago hitzetan adierazterik. Hori bizi egin behar da. Ogia, txokolatea, ur pixka bat eman zizkiguten indartzeko eta etxeranzko bideari ekin genion.

Etxean, fraideen errieta txikiren bat eta gehienek poza sentitu ondoren, gosalduta eta ohera joan ginen goizeko zazpiak aldera.

Erantzuna liburuetan dago: jakin-mina zientziaren oinarri...

Eguerdian, jaikitakoan, ni kombentuko liburutegira joan nintzen, piztitzar haren hezurdura leizeetako hartzarena ote zen ziurtatzera. Hango liburu batean hartzaren hezurdura ikusi nuen eta konturatu nintzen hartzak burezurra handiagoa duela, zabalagoa guk aurkitutako piztiak baino. Lagunei esan nien guk aurkitutako hezurdura ez zela leizeetako hartzarena, beste zerbaitena behar zuela izan. Eta horrela, handik denbora batera, fraideen animoak lasaitu zirenean, beste espedizio bat antolatu genuen piztia zegoen tokira. Eta konturatu ginen piztia oso handia zela (hiru metro inguru luzeran) eta hagin bat kolokan zeukala. Hura hartu eta Jesus Altunari bidali genion, hark argi ziezagun zein piztirena zen. Eta gure harridura izugarria izan zen *“Panthera spelaea”* leize-lehoia zela esan zigunean, Afrikako gaurko lehoia baino ia metro erdi bat luzeagoa. Isilik gordetzeko agindu zigun eta guk hala egin genuen.

Gero, leize-zulora sartzen jarraitu genuen 1967 osoan. Eta, ibiliaren ibiliz, zorte izugarria izan genuen, lehoia zegoen gelatxotik berrogei bat metrora, estalagmita geruza lodi bat, kolada izugarrian, erortzen baitzen hogeit bat metroko altueratik. Ez dakit zergatik, baina handik gora igo ginen eta goian hodi antzeko zulo luze bat topatu genuen, haize korrante leun bat jaurtitzen zuena.

“Hemen nonbaiten pasadizoren bat edo zuloren bat egon behar du ba”, izan zen gure pentsamendua eta



Barruko galerietan.
(I. Zubeldia bilduma).

baita asmatu ere. Harrizko hodi antzeko hartan aurrera eginez beheko galeria estu batera ateraginen eta han armiarma, tximeleta eta troglonio antzeko zomorro batzuk ikusi genituen, eta arrautza azal bat ere bai. Hori dena ezin zen leizearen sarrera normaletik etorria izan, bi kilometro baino gehiago uretan eta lokatzetan ibili ondoren. Eta horrela jarraitu genuen pixkana-pixkana galeria hura zulatzen aitzur txiki batekin eta kentzen genuen lurra alboetara botatzen, harik eta sei-zazpi metrora zulo txiki bat ikusi genuen arte, eskoba kirtenaren tamainakoa eta kanpoko argia ikusten uzten zuena.

Ez dakit zenbat aste edo hilabete behar izan genituen handik irteera bat egiten 40 x 40 cm-koa gutxi gorabehera. Jose Mari Arzallus goiaztarrak, nire ikaskide izanak, ziurtatu dit 1967ko azaroan oraindik bukatu gabe geneukala kanpora ateratzea ahalbidetzen duen zuloa.

Patxi Arana bermeotarra ere hantxe aritu zen, beste hainbat ikaslerekin batera, ahaleginetan irteera hura egin ahal izateko. Eta seguru asko 1968an lortuko genuen zuloa egi-tea. Urte horretan nik fraide bizitza uzteko asmoa nuen eta gure maisu edo gidari lana betetzen zuenak erregutu zidan urtebeteko aldi bat har nezala froga gisa, fraideetarako balio nuen edo ez ikusteko. Horrela, Zarauzko kombentura joan nintzen froga aldi hori betetzera, hango Antoniano ikastetxean irakasle lanak egiten nituelarik. Hori irailaren hasieran izan zen.



Lehoiaren indusketa arkeologikoa

Eta udazken horretan bertan etorri zitzaidan Jesus Altuna paleontologoa Arrikruzko lehoia atera behar genuela eta laguntzaile joango al nintzen. Aurrez adierazia genion Jesus Altunari lehoia zegoen tokitik berrogei metro-ra zulo bat egina genuela, eta nahiz eta Oñatiko Aloña Mendi Espeleologia Taldekoek burdinazko ate bat sarrailarekin jarria zuten bertan, gerta zitekeela hezur haiek lotsagaberen baten eskuetan erortzea. Horregatik paleontologoaren presa hezurdura hura lehenbailehen ateratzeko. 1968ko udazkena izango zen, urria seguruko, hiru igandetan joan ginena Arrikruzera, goizeko 10etatik arratsaldeko 6ak bitarte gutxi gorabehera, hezurak ateratzera. Anjel Laburu, Jesus Altuna eta ni neu, Iñaki Zubeldia, aritu ginen hiru igandetan zehar Arrikruzko *Panthera spelaearen* hezurak ateratzen. Jesus Altunaren lana harrigarria zen niretzat: poliki-poliki hezurretara hurbildu labantxo batekin lurra kenduz, hezur bakoitza kontuz-kontuz hartu, plastikozko zorro batean sartu eta haren izena jarri (atzeko ezkerreko hankako lehen metatarsianoa, aurreko eskuineko hankako bigarren metakarpianoa...) eta horrela. Hiru igande behar izan genituen hezur guztiak, banan-banan, plastikoz sartu eta kontuz-kontuz kanporatzeko, kolada estalagmitikoan gora igo eta zulo artifizial txiki hartatik ateraz. Hirugarren igandean uste dut topatu zituela Jesus Altunak beste animalia txiki batzuen hezurak (marmota eta saguren bat agian... baina oroimen hauek oso lausotuta dauzkat).

Jesus Altunak lehoiari buruzko ikerlana alemanez idatzi zuen eta Alemaniako zientzia aldizkari batera bidali zuela uste dut. Diotenez Arrikruzko lehoi hori Iberiar penintsulako lehenengo hezurdura osoa eta bakarra da eta European hirugarrena.

Gero, nik frantziskotarren ordena utzi nuen, maisutza ikasi eta irakaskuntzan hasi nintzen. Eta Arrikruzera joaten jarraitu nuen. Nirekin sartu ziren 1970eko hamarkadan Felix Ruiz de Arcaute bera, Jaturabe aldeko sarrera txikitik, Pierre Rigault Oñatiko





Goian Espeleologo taldea eta Iñaki Zubeldia lehen ilaran.
Behean Jesus Nazabal eta Iñaki Zubeldia. 2016.
(1. Zubeldia bilduma).

espeleologoa eta Arrikruzko plano-
rik osatuenetakoa egin zuena 1972an,
Oñatiko AMETeko kide batzuk (Etxebe-
rria, Txintxurreta...), Ordiziako Gonzalez
Katarain anaiak, hamarkada horretan
bertan Arrikruzko koloretako argazki
sortarik ederrenetakoa egin zutenak...


*Eta nire memorian betiko itsatsita
geratu dira lur azpiko oroimen ahaz-
tezin haiek eta Arrikruzko leize-zuloare-
kiko maitasun ezkutua. Oraindik ere
nire bigarren etxetzat jotzen dut koba
hori, bere edertasunagatik, bere handi-
tasunagatik, bere xarmagatik... eta bere
leizeetako lehoi maitagarri horrengatik.
2016an Jesus Nazabalek eta biok, Ma-
roto ezin izan baitzen etorri, handikiro
ospatu genuen gu galdu gineneko eta
lehoia aurkitu genueneko 50. urteurre-
na, gu galdutako tokia eta lehoia aur-
kitutako gela bisitatuz, beste sei lagu-
nekin batera. Nire eskerrik beroenak
ekitaldi horretarako lagundu ziguten
Leire Garai, Borja Abarrategi eta Miren
Lide Zumalderi, Arrikruzko kudeatzaile
eta adiskide jatorrei.*

04

Geologia

Itsaso tropikalak

“Aizkorri mendizerraren historia geologikoa ulertzeko milioi urte asko egin behar dira atzera, 125 milioi urte gutxienez”.



Errudista fosilez eratutako kareharria, duela 110 milioi urte ingurukoa.

Arantza Aranburu eta Arantxa Bodego

Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU). Geologia Atala
Aranzadi Zientzia Elkarte.

Aizkorri mendizerraren historia geologikoa ulertzeko milioi urte asko egin behar dira atzera, 125 milioi urte (Ma) gutxienez, Mesozoiko erara eta Kretazeo periodora iritsi arte. Garai hartako kontinenteen banaketa, itsasoa, klima eta bizidunak gaurkoekin konparatuz oso ziren ezberdinak. Gaur egun Euskal Herria osatzen duen eremuaren gehiengoa itsasoa zen, sakonera txiki zein handikoa. Garai hartan, Amerika eta Iberiar Penintsula kokaturik zeuden bi plakak elkarrengandik gertu zeuden, biak aldentzen dituen lurrazal ozeanikoa estua baitzen. Lurrazal ozeanikoa plakak banatzen diren eremuetan garatzen diren goragune bolkanikoetan, gandor ozeanikoetan, sortzen da, eta sortu ahala plakak aldentzen dira. Plaken aldentzeak eragindako tektonikak gure lurraldeko itsas hondoa goragune eta zokogunetan banatu zuen, failek eraginda bloke batzuk altxatu eta besteak hondoratu zirelako, subsidentzia ezberdineko guneak sortuz. Gune goratu edo sakonera txikiko gune itsastar horietan, beraz, karbonatoa fijatu ohi zuten izakien kolonizatzea eta ugaritzea gertatu zen, bertan karbonatozko plataformak garatuz (1. irudia). Hau posible izan zen, erreketatik itsasoratutako sedimentuak subsidentzia handieneko gune hondoratuetatik bideratu zirelako, goragunetako eremuak sedimentu-kutsaduraz libre utziz. Hondoratutako zokogunetean kontinentetik errekek barreiatutako legar, hare eta buztinak metatzeaz gain, altugunetatik eroritako eta grabitatez pilaturiko sedimentu eta arroka zatiak (bretxa eta olistolitoak) metatu ziren.


Aizkorriko kareharriak Aptiar estaian (Behe Kretazeoa, duela 125-113 Ma) garatzen hasitako karbonato-ekoizpen hauen ondorioz sorturikoak dira. Bertan fosilduta topa ditzakegu orduko koral eta molusku errudistak, baita begi bistaz nekez ikus daitezkeen itsas hondooan bizi ziren izaki zelulabakarren (foraminifero bentoniko) oskolak

ere (2. irudia). Ekosistema honek, Aizkorriko kareharria argiztapen oneko (sakonera txikiko) itsaso epelean sorturikoa dela adierazten digu. Kareharri hauek, beraz, Euskokantauriar arroko itsaso tropikalean garatutako karbonatozko **arrapala motako plataformaren** lekuko dira.



1. irudia: Behe Kretazeo garaian Euskokantauriar arroan metatzen eta sortzen ari ziren arroka ezberdinen banaketa. Zirkulu gorrian, gaurko Aizkorriko kareharriak metatu zireneko gunea (Irudia, Rosales eta Perez-García, 2010, García-Mondéjar, 1990tik moldatua).


43



2. irudia: Behe Kretazeoko itsaso epel-beroan garatutako kareharrietan ikus daitezkeen fosilak:
 a) koral adarkatuak,
 b) koralak eta errudistak.


Hegoaldera, aldiz, karbonatozko plataforma bukatu eta hondartzak ziren nagusi, eta hare hegoalderago garai hartako kontinentea kokatzen zen (1. irudia). Aptiar-Albiar garaian beraz, itsas kresala Vitoria-Gasteiz pareraino iristen zen.

Goi Aptiarreko itsaso epel hartan garatutako karbonatozko plataforma ez zen etengabean hazi. Behe Albiar aldera, duela 110 Ma, erreketatik heldutako sedimentu emaria asko handitu zen eta karbonatozko arrapala kutsatzen hasi zen, ura filtratuz, karbonatoa jariatzen zuten izakien ekosistemak gune ez kutsatuetara bultzatuz eta karbonato-ekoizpena itsas plataformaren bi ertzetara mugatuz (Zaraia eta Zegama). Honen adibide dira Urbiako zelaietan azaleratzen diren tupak, bertako belardi zein errekaen sostengu edo Araotz auzoaren inguruetako kareharri tupatsuak ere (kolore horiz irudikatuta 3. irudian).



3. irudia: Aizkorriko inguruetako mapa litologikoa (GeoEuskadiko bisoretik hartua). Kolore grisez kareharri puruak; horiz tupa eta kareharri tupatsuak; marroia eta laranja hareharri eta lutitak.


Emari detritiko gutxiko garai oparoetan, aldiz, koral eta molusku errudistek tupaz estalitako itsas hondoa kolonizatzen zuten, Araotz-Orkatzategiko “biohermoa” garatuz lehenbizi (4. irudia) eta Enaitz, Zabalaitez eta Arantzazukoa, milioi urte batzuk geroago. Araotz-Orkatzategi eratu zuten izaki iragazleek beraz, momentu oparoetan ipar-mendebalderantz kolonizatu zuten itsas hondo tupatsua (5. Irudia).



4. irudia: Behe Kretazeoko itsaso epel-beroan Aizkorriko inguruetan garatutako kareharrien zehar ebakia. Beheko estratuak zaharragoak dira eta gainekoak gazteagoak, gorantza denbora adierazten duelarik (Fernandez-Mendiola, 1987tik eraldatua).

Behe Kretazeo garaiko itsas tropikaleko karbonato-ekoizpena, erdi-goï Albiar garaian (100 Ma) bukatu zen, kontinentetik barreiatutako sedimentuek (hareharri eta lutitak) itota, delta sistema baten azpian. Delta honetan pilaturiko arroak gaur, esaterako, Urkilla, Elgeamendi, Zurkutz edo Malkorra mendietan azaleratzen dira (kolore berde eta laranja, 3. irudian; kolore marroia, 4. irudian).

Baldintza itsastarrek luze iraun bazuten ere gurean (duela 200 Ma-tik 40 Ma bitarte), Iberiar eta Europako plaken talkaren ondorioz, ordura arte Euskokantauriar arroan metaturiko sedimentu/arroka guztiak tolestuz eta faila bidez apurtuz aireratzten/kanporatzen hasi ziren. Azkenak metatutakoak kanporatu ziren lehenengo, eta denboraren poderioz Aptiar-Albiar garaiko koralez eta moluskuz osaturiko kareharriak itsas-maila gainetik 1000m-tik gorako garaierara iritxi ziren, ondorengo higadurak maila hau jaitsi bazuen ere gaur egungo garaiera lortu arte. Honen lekuko dira, besteak beste, Orkatzategiko kareharri (biohermo) hauek (5. irudia).



5. irudia: Orkatzategiko kareharrien migrazioa WNW alderantz, azpian eta alborantz, Urbiako tupak. Behe Albiarra. Arantzazurako bidetik ikusten den perspektiba, argazkian (a) eta Fernandez-Mendiola, 1987tik moldatutako eskema (b).



6. irudia: Arrikruz koba-sistema bere baitan duen Araotz-Orkatzategi kareharria (“biohermoa”). Behe Kretazeoko itsaso tropikalean sortu (duela 110 bat Ma) eta gaur mendi; Arantzazu erreka urak Gesaltzatik barna galtzen direneko parajea. Kareharri hauen baitan kokatzen da ere Arrikruzeko koba.

25-30 Ma luzez iraun zuten konpresio-indarren ondorioz iraganeko Euskokantauriar itsasoan metaturiko sedimentuak arroka bilakatuta mendi izatera pasa ziren. Prozesu honetan eta ordutik gaurdaino, jada tektonikaren bultzada moteltzen joan zen heinean, higadura izan da nagusi. Gurean, azken milioi urteetan klima ezberdinak pairatu ditugun arren, ura izan da eta da arroka zizelkatzen nagusi. Milioika urtez uraren eraginpean egon diren arrokek, beraz, litologiaren arabera higadura-tasa ezberdina pairatu dute. Horrela, tupak (karbonatoz eta buztinez eraturiko arroka) zein karbonatozko zementua duten hareharriak dira errazen higatu direnak. Kaltzio karbonatoa disolbatzean arroka birrindu egiten da eta disolbagaitz diren kuartzo eta buztinak urak garraiatu ditzake edo lurzoruaren parte osatzera pasa. Kareharriak aldiz, nahiz urarekin disolbatzeko joera izan, nahikoa puruak izanik, bolumen galera txikiagoa pairatzen dute eta ondorioz, gehienetan erliebe positiboak (goraguneak) garatzen dituzte. Ezagunak dira horrela kareharrietan lenarrak eta dolinak, disoluzioak kareharrien azalean garatzen dituen aztarnak; kobak, aldiz, urak kareharriaren baitan egiten dituen “ubideak” dira. Hau da Arrikruz koba bere baitan duen Orkatzategi-Araotz kareharrien kasua (6. irudia).

05

Leize-ikerlariak

“Gesaltza-Arrikruz kobak egun 14km-ko garapena eta 140m desnibela dauzka. Oraingoz Gipuzkoako kobarik luzeena da”




Felix Ruiz de Arcauterer kaskoa.

Martin Arriolabengoa, Borja Abarrategi, Joseba Dorado, Carlos Eraña, Andoni Olalde, Laura Pereda, Xabier Azkoaga, Santi Ugarte

Aloña Mendi Espeleologia Taldea

Arrikruzeko koba Arrikruz baserriaren azpian dago, hortik izena, bere sarrera handiarengatik eta Aldaola erreka bertan lurperatzen delako ezagutzen Oñatiko inguru hauetan. Sarrera horretatik esploratutako galeria sareak Arrikruzko koba izena hartu zuen. Bertakoek bazekiten koba hau eta Gesaltzakoaren arteko lotura zegoela, izan ere, agerikoa da Aldaola eta Arantzazu erreketako urak lur-azpian batu eta leku berean kanporatzen direla, Jaturabeko koba-iturburuan, hain



1. irudia. Gesaltza-Arrikutz kobaren garapena.

zuzen (1. irudia). Hala ere, Gesaltzako *Lizuna*, (Izaguirre, 1970) Gesaltza eta Arrikutzen arteko lotura fisikoa, 90eko hamarkadan etorriko zen Aloña Mendi Espeleologia Taldeko (AMET) espeleologoek aurkitutako loturarekin. Harrezkeroztik, koba bakarra osatzen dute, Gesaltza-Arrikutz koba. Honetaz gain, badira inguruan beste baina ez Gesaltza-Arrikutz kobarekiko erlazio gabeak. Hala nola, egun urperatua dagoen Jaturabeko iturburu-koba adibidez. Jaturabeko presa bete aurretik langile batzuk iturburutik sartu eta Arrikruzko baserriaren azpian irten omen ziren. Edo Txintxin koba adibidez, Artzen koba izenarekin ere ezaguna, bere barreneko galeriak Arrikruzetik oso gertu geratzen dira, ziurrenik koba bera direlarik. Koba hauek eta aipatu gabeko beste batzuek, Gesaltza-Arrikutz multzo karstikoa osatzen dute (Arrue et al., 1996).



Lehen Euskal-Nafarroako Espeleologia Kongresua. Argazkian Félix Ruiz de Arkaute eta María-Dolores Irazusta, senar-emaztea. (J. Elosegui. 1956)

Liburu honen xedea Arrikruzko lehoia izanik, ezinbestekoa egiten zaigu Gesaltza-Arrikruz kobazuloa bertan aurkeztea. Horrenbestez, atal honetan kobazulo konplexu honen esplorazioaren historia pixka bat, koba sistemaren deskribapen orokorra, eta bertan azaltzen diren bitxikeriak eta gune ikusgarrienak azalduko ditugu.

3.1. Esplorazioaren historia

Inguru hauetan ezagutzen diren lehen esplorazio garrantzitsuak XIX. mendekoak dira, eta aztarna paleontologikoak eta arkeologikoak aurkitzea izan ohi zuten helburu. 1871. urtean Silvestre Umeriz historiaurrelari eta irakasle oñatiarrak, Aizkirriko koba aztertu eta Iberiar penintsulako lehen *Ursus spelaeusen* hezurak aurkitu zituen, ondoren 1877an Miguel Rodriguez Ferrer andaluziarrak lanarekin jarraitu eta hainbat argitalpen burutu zituen. Beranduago, 1893. urtean Rogelio Gordon margolari eta argazkilariak idatzitako kronikaren arabera lehenengo aldiz esploratu zuen Gesaltza *“No encontramos más huellas que en las que el viaje anterior dejamos mi guía y yo, así es que casi podemos creer haber sido los primeros que han estado en este último sitio”*. Leku honi *“Oilotokia”* esaten zaio gaur egun, eta sarreratik oso gertu geratzen da. Oso urrun iritsi ez baziren ere, euren asmoa Gesaltzatik sartu eta Jaturabeko iturburu-kobatik irtetea zen, 25 metroko soka batez eta kandlez baliatuz. Kontuan izan garai horretan Jaturabeko presa eraiki gabe zegoela, beraz egun ur azpian dagoen koba-iturburu agerian zegoen, eta ezaguna zen biak koba bereko sarrerak izan zitezkeela. Zoritxarrez, ordukoa baino material egokiagoz egindako esplorazioak askoz beranduago etorri ziren eta ordurako eraikitako presak Txintxin koba eta Gesaltza-Arrikruz koben galeria ugari ur azpian ezkutarazi zituen, baita sedimentuz estali Jaturabeko iturburu-kobaren sarrera (2. irudia).

Bigarren esplorazio esanguratsuenak XX. mendeko 50eko eta 60ko hamarkaden bitartean etorri ziren. 1950. urtean Jesus Elozegi arkeologoaren zuzendaritzapean,



2. irudia. Ezkerrean: 1947. urtea, Jaturabe-ko iturburu-kobako sarrera oraindik tarteka bistan gelditzen zen garaia (J. Elosegui). Eskubian: Sarrera urak hartuta eta sedimentuz beteta (Aloña Mendi Elkartearen bilduma).

Reyes Korkostegi oñatiarra (bertako alkate izandakoa), Eibarko Juan San Martin espeleologoa, Miguel Etxeberria, Luis Arrieta eta Juan Maria Larreak, Gesaltzako kobaren ikerketari ekin zioten. Horretarako, Arrasateko *Unión Cerrajera* enpresaren laguntza jaso zuten, hauek Arantzazu errearen hidrologiaren azterketan oso interesatuak baitzeuden. Lehen saiakera honetan kobaren goiko galeriak ikertu zituzten. Kobaren luzera handia zelako eta eragozpen teknikoak zirela medio, ikerketak hurrengo urteetan zehar luzatu ziren. 1951. urtean berriz saiatu ziren, oraingo honetan Felix Ruiz de Arkaute espeleologoaren taldearen laguntzarekin. Arkautek, atzerrian lortutako esperimentzia pertsonalaz gain, material egokia ekarri zuen: metalezko eskalak (penintsula iparraldean lehen aldiz erabiliak). Aldi berean, Reyes Korkostegi eta Miguel Etxeberria jaunek Arrikruzko ikerketari ekin zioten, eta Gesaltzan gertatu bezala, ikerketa hainbat urtez luzatu zen. Arkauteren taldeak 1952. urtean Arrikrutzen albo-galeria berriak aurkitu zituzten, horietako bati Marcel Loubens izena jarri zioten, urte berean San Martingo harria leizean (Nafarroa) hil zen frantses espeleologo famatuaren omenez. Hurrengo urteetan esploratutakoaren topografia lanean jardun zuten, eta besteak beste, Oñatiko Jose Luis Txintxurreta espeleologoak Txintxin koba (Hartzen koba) esploratu zuen 1954. urtean. Ziur gaude halaber, aipatutako gertakizun eta pertsoez

gain, izan direla beste hainbat, beraien berririk ez izan arren, alde honen ezaguera lortzen lagundu zutenak. Azkenik, ordura arte Gipuzkoan izandako ikerketa espeleologiko garrantzitsuena bukatzen joan zen. Aipatzekoa da 1956. urtean Arantzazun ospatu zen Euskal Herriko Lehen Espeleologia Biltzarra (Primer Congreso Vasco Navarro de Espeleología), bertara leku askotako espeleologo eta ikertzaile bildu ziren. Biltzar honek eragin handia izan zuen gure herriko espeleologiaren abiabidean.



3. irudia: 1965. urtea, ezkerretik eskubira: ezezaguna, Modesto Zilaurren, Antonio Arratibel, Jose Luis Txintxurreta. (Aloña Mendi Elkartearen bilduma).



4. irudia. 1965. urtea, ezkerretik eskubira: "Petic", Jose Luis Txintxurreta, Felix Ruiz de Arkaute, Antonio Arratibel, Jose Luis Puente, Roland Rigault. (Aloña Mendi Elkartearen bilduma).

60ko hamarkadaren hasieran lanen intentsitatea ahulaldi bat nozitu zuen arren, 1968. urtean gertaera garrantzitsu bat aipatu behar da: Aloña Mendi Espeleologia Taldea (A.M.E.T) osatu zuten Pierre Rigault-ek, Felix Ugartek eta Jesus Etxezarretak. Hauek hainbat irteera egin zuten Gesaltza-Arrikruztx konplexu karstikora, galeria berriak aurkitu, eta 1972. urtean Arrikruztxko topografia ederra osatu zuten, guztira 7

km-ko garapenarekin. 1977. urtean Euskal Herriko XII. Espeleologia Jardunaldiak burutu ziren Gesaltzan, eta Euskal Herriko espeleologia taldeen parte hartzeaz (guztira 70 espeleologo baino gehiago) Gesaltzako galeria ezagun guztiak topografiatu zituzten, guztira 5 km, eta horretaz gain, beste hainbat datu berri batu ziren (bioespeleologia, litologia, klimatologia, eta abar).



Juan San Martin beste espeleologo batzuen ondoan. Arantzazu, 1961. (AGG-GAO_ JSM0019).

Ikerketa espeleologikoari emandako azken bultzada garrantzitsua 90ko hamarkada inguruan etorri zen. 1989-1994 urte bitartean AMETek koba sistema osoa esploratu eta 2.500 m. gehiago topografiatu zituzten, eta besteak beste, 1990. urtean Gesaltzako kobazulotik Arrikruzera pasabidea aurkitu eta bi kobak batu zituzten.

Ordutik hainbat irteera prestatu ditu AMET taldeak koba honetara, batzuetan beste espeleologia talde batzuekin, hala nola Arrasateko Besaide, Eibarreko taldea, eta abar. Egun, badira oraindik hainbat zirrikitu ezezagunak, eta horiek esploratzen dihardute AMETekoek.

3.2. Gesaltza-Arrikruz kobaren deskribapena

Gesaltza-Arrikruz kobak egun 14 km-ko garapena eta 140 m desnibela dauzka, oraingoz Gipuzkoako kobarik luzeena da, eta Euskal Herriko 12.a (*Karaitza* 25, 2017). AMET-ekook orain arte koba honen inguruan egin diren lanetan (Aloña Mendi G.E., 1974; Arrue et al., 1996), bi koba ezberdin gisa deskribatuak izan dira (Arrikruz eta Gesaltza); lan honetan ordea, era orokor batean koba sistema bakarra bezala deskribatzen saiatuko gara.

Lehenago ere esan dugun bezala, Gesaltza-Arrikruz kobazulo sistema Arantzazuko erreka ibilbidean kokatzen da, berau oztopatuz, eta ondorioz, erreka lurrazale-tik joateari utzi eta koba sisteman lurperatzen da. Are gehiago, euririk egin ezean Arantzazuko ibaia **Gesaltzako** sarbidera (5. irudia) iritsi baino lehenago lurperatzen da. Baina Arantzazuko erreka ez da kobazulo honekin lotura duen bakarra, besteak beste, Aldaola erreka ere kobazuloa gordetzen duen muino karstikoa hegaldetik iparraldera azaletik zeharkatu, eta **Arrikruzko Lizunatik** lurperatzen da, kobara sartuz. Azkenik, Araotz erreka kobazuloaren ipar mendebaldetik igarotzen da, eta egun,

nahiz eta ez duen kobazuloako sarrerarik erakusten, Txintxin kobak eta Gesaltza-Arrikutz kobako hainbat galeria fosilek erreka honen eragina jasan zuten beste garai batean. Erreken eraginaz gain, Gesaltza-Arrikutzeko koba sistemak ipar-mendebalde - hego-ekialde norabide nagusi bat erakusten du, kareharriaren estratifikazioaren norabideari dagozkiona, eta bigarren maila batean ipar-ekialde - hego-mendebalde norabideko galeriak erakusten dituzte, hauek arroka zeharkatzen dituen hainbat faila edo hausturen baitan sortuak. Beraz, egun ezagutzen dugun kobazuloaren galerien morfologia, norabidea eta bilakaera aipaturiko hiru errekei zein



5. irudia. Gesaltzako Lizuna. (Aloña Mendi Elkartearen bilduma).

arrokaren stratigrafiari eta haustura planoari zor diegu hein handi batean. Arrazoi hauengatik, Gesaltza-Arrikruzeko koban galeria aktiboak (egun erreka dutenak), galeria fosilak (antzina errekek igarotzen zituenak), putzuak (galeria bertikalak), arroila motako galeriak, zein sifoiutako galeriak edo galeria freatikoak (egun urperatuak daudenak) dauzka besteak beste. Ondorengo lerroetan, **Gesaltzako Lizunatik** sartu eta **Jaturabeko Sarrera txikitik** (6. irudia) aterako gara, tartean azaltzen diren galeria nagusienetatik igaroz.

Arantzazuko errekek ur asko dakarrenean **Gesaltzako Lizunako** sarreratik sartzen da, 40 m-ko altuera eta 10 m-ko zabalera erakusten duen aho erraldoia (5. irudia), eta **Gesaltzako Galeria Nagusitik** (7. irudia) jarraitzen du 200 m inguru eginez. Bai sarrera



6. irudia. Jaturabeko Sarrera Txikia. (Aloña Mendi Elkartearen bilduma).

eta bai lehen galeria hau ikusgarriak dira erakusten duten zabaleragatik eta bidean aurkitzen diren metro tamainako errekarriengatik. Ondoren, **Gesaltzako Galeria Nagusia** bost bidetan banatzen da, eta bide hauetako bakoitzak bere ibilbidea jarraitzen du, orokorrean arroila motako galeriak direlarik, tarteka metrotako putzu edo saltoak azaltzen dira, eta marmita motako egiturak ere bai arroilan zehar. Banatzen diren lau bide edo galeria hauek altuera ezberdinean kokatzen dira, eta Arantzazuko errekek sortuak izan dira denboran zehar. Egun, lau bide hauetatik kotan baxuen aurkitzen den galeriatik ihes egiten du errekek, **Inbutu putzutik** hain zuzen ere.

Inbutu izeneko putzua jarraian dauden hainbat metrotako putzuek osatzen dute, eta izenak adierazten duen bezala lehen jauzi honetan galeria estutu egiten da, sedimentuz eta enborrez osatutako tapoiak sortuz. Azken saltoaren ondoren (22 me-



7. irudia. Gesaltzako Galeria Nagusia. (Aloña Mendi Elkartearen bilduma).

troko putzua), **Bilboko Gela** handira igarotzen da, sabaitik eroritako hainbat blokez osaturiko galeria delarik. Hemendik, alde batera **Bake Galeria** eta **Bizkaitarren** arroila motako **galeria** geratzen dira, eta bestera **UVE Gela** eta **Titanen Galeria**, erreka galeria bietatik igarotzen da, bere aztarnak bertan utziz. Kobaren bide zabalenak **Titanen Galeriatik** jarraitzen du, **Nahia** putzura iritsi arte. Bide honetan, galerien dimentsioak zerbait txikitzen dira, eta errekaen jalkin zaharrak ikus daitezke galerien alboetan. **Nahia putzua** jaitsi ondoren **Marmiten Galeria** azaltzen da, izenak dioen bezala, marmitez jositako arroila ikusgarri bat delarik, eta maldan behera egiten du salto txikiak eta urez betetako marmitek tartekatuz (8. irudia). Bukaeran, errekaen bidea **Lakuen Galeriarantz** bideratzen da, eta hona iristean sifoitzen hasten da, galerian zehar hainbat ur-putzu eta sifoi utziz. Arantzazuko erreka sarreratik egiten duen ibilbide ohikoa hau bada ere, **Gesaltzako Galeria Nagusiaren** amaieran beste lau galeria utzi ditugu



8. irudia. Marmita formazioa, arroila motako galerian. (Aloña Mendi Elkartearen bilduma).

jarraitu gabe. Adibidez, iparralderantz galeria hauetako altuena geratzen da, **Oilotoki** izena duen galeria fosil bat (9. irudia) eta bertatik aurrera eginez **Jantoki Gela**, **Politta putzua**, (10. irudia) **Esperantza putzua**, **Etorkizunen galeria** eta abar geratzen dira, bertatik erreka igarotzen ez direnak, eta espeleotema ikusgarriak erakusten dituztenak. Beste bide batek **Bihotza putzura** darama, eta hemendik **Azpiko Galeria Nagusira**, **Felix Ruiz de Arkaute Galeria**, eta abar. Galeria hauek, eta batez ere **Felix Ruiz de Arkaute Galeria**, arroila motakoak dira, eta ura duten marmitez josita egoten dira, bertatik noizbehinka erreka igarotzen dela nabarmenduz. **Gesaltzako Galeria Nagusia**-ren amaieran geratu zaigun azken galeria bideak, **Despiste putzura** (11. irudia) darama, eta hemendik **Felix Umerez galeriara**. Azken galeria hau maldan behera garatzen da, oinean urez eta lokatzez beteriko marmitez osaturik, eta galeriaren amaieran lehenago azaldu den **Titanen galeriarekin** konektatzen du.



9. irudia. Oilotoki galeria. (Aloña Mendi Elkartearen bilduma).



10. irudia. Politta putzua. (Aloña Mendi Elkartearen bilduma).



11. irudia. Despiste putzua. (Aloña Mendi Elkartearen bilduma).

Esplorazioen historian aurreratu den bezala, 1990ean **Lakuen Galeriatik** gorantz egiten zuen galeria fosil estu batetik igaro eta Arrikrutzen aurkitzen den **Eszentriken Galeriar**a (12. irudia) iritsi ziren AMETeko espeleologoak, eta izenak dioen bezala, galeria fosil honetan azaltzen da Arri-



kruzko espeleotema eszentriko ikusgarrietako bat. Aurrera egin ahala **Gourren Galeria** aurkitzen da, zorua gours handiez estalia duelarik, eta aurrerago **Korkostegi Gela** (13. irudia) azaltzen da, **Arrikruzko Galeria Nagusiarekin** kontaktuan. Galeria hauen ipar-ekialderantz hainbat galeria gelditzen dira, besteak beste **Arratibel Galeria, Juan San Martín Gela, Arraildura Galeria** edota **Marcel Loubens Galeria Sarea. Arrikruzko Galeria Nagusia** (14. irudia) galeria aktiboa da, eta euria egiten duenean Aldaola erreka bertatik igarotzen da. Aldaola errekek hegoaldeetik iparraldera mazizo karstikoa lurrazaletik zeharkatzen du lehenik eta behin, eta gero **Arrikruzko Lizunatik** lurperatzen da, ipar-ekialdetik hego-mendebalderantz eginez, putzu handirik gabeko galeriatik. **Korkostegi Gelara** iristean, galeriaren norabide orokorra aldatzen da, hego-ekialdetik ipar-mende-

balderantz bilakatuz, eta puntu horretan **53 Galeria** fosila geratzen da iparraldean. **53 Galeria, Arrikruzko Galeria Nagusia**ren hasierako zatiarekiko paraleloa da, eta orain fosila bada ere, galeriaren paretetan azaltzen diren errekarrien metaketa zahar, handi eta ikusgarriek Aldaola erreka noizbait bertatik igarotzen zela erakusten dute. Izan ere, errekek metatutako legar hauek kobako ikerketa geologiko baten euskarri izan dira (Arrizabalaga, 2000). Bestetik, **53 Galerian** zehar egun pasabide turistiko bat eraikia dago (15. irudia) berau bisitatu ahal izateko, eta horren ildotik, galeriaren ikerketa klimatiko bat ere egin zen bertako baldintzak ezagutzeko (Eraña et al., 2004). **53 Galeria** alde batera utzita eta **Arrikruzko Galeria Nagusitik** jarraituz, ehunka metro aurrera egin eta gero Aldaola erreka desagertzen hasten da, bukaeran guztiz sifoitu

arte, izan ere, zerbait aurrerago **Azpiko Galeria** eta **Lakuen Galeria** azaltzen da (16. irudia), hainbat ur-putzu eta sifoi erakusten dituena. **Azpiko Galeria** eta **Arrikruzko Galeria Nagusia** elkartzen diren tokian, iparralderantz galeria fosil bat zabaltzen da, eta bertatik jarraitzen du kobazuloak.

Pisu fosilean zehar azaltzen den lehen galeria **Gose Galeria** (17. irudia) da, eta ondoren aurrerago **Maravillas Gela** (18. irudia) aurkitzen da, non uraren presioz sortutako sabaia estalaktitaz estalia dagoen. Puntu honetan hainbat galeria eta bide-banaketa daude. Ipar-ekialderantz **Zilarren Galeria**, **Arantzazu Galeria** eta **Oñatiko Gela** kokatzen dira, baina kobak mendebalderantz jarraitzen du, **Arrikruzko Lakutik** aurrera, honekin ere, hainbat ur-putzu erakusten dituelako jarri zitzaion izen hori. **Arrikruzko Lakutik** aurrera lehen desbideratzea ipar-ekialderantz ematen da, eta bertatik **Arraildura Galeria** eta **Felix Ruiz de Arkaute** geletara joaten da. Bigarren desbideratzea hego-mendebalderantz garatzen da, bertatik hurrenez hurren **Mamut Gelara**, (19. irudia) **Aranzadi Galeriar**a (20. irudia), **Aranzadi Gelara** (21. irudia) eta **Larraioz Galeriar**a iristen da. Azken galeria hauek dira hain zuzen ere aztarna paleontologiko gehienak gordetzen dituztenak. **Mamut Gela** izenarekin badirudi ugaztun erraldoi horren hezurrak aurkitu zirela, baina horrela beharrea, bertan azaltzen den eta mamut baten itxura duen espeleotema formazio handi bategatik deritzo horrela. Aurrerago, **Aranzadi Galeria** eta **Aranzadi Gela**n ordea, sekulako hezur pilaketa handiak azaltzen dira, eta gela bera handia izan arren, kontu handiz ibili behar da berauek ez zapaltzeko. **Larraioz Galeriar**en dimentsioak askoz txikiagoak dira, baina hezurren pilaketak jarraitzen du, gainera, galeria hau Txintxin kobaren norabide berdina erakusten du, bien artean metro gutxiko distantzia dago, eta segurua da koba sistema berdina osatzen dutela. Izan ere, Txintxin koban ere hartz hezur pilaketa handiak ageri dira. Azkenik, kobazuloaren adar honekin bukatzeko, orain urte gutxi aurkitutako **Leire Galeria** aipatzea komeni da, **Aranzadi-ko Gelatik** tximinia bat eskalatu ondoren azaltzen da, eta bertan, Euskal Herrian lehen


aldiz aipatu diren *mud-cup conulite* izeneko espeleotema formazio bereziak azaltzen dira (22. irudia). Alboetarantz geratzen diren galeria hauek utziz eta ipar-mendebalderantz jarraituz, Arrikruzeko lehoia aurkitu zen gelara iritsi gaitzke. Beste aztarna paleontologikoak dituzten galeriekin konparatuz (**Larraioz Galeria** eta **Aranzadi Gela**) oso gela txikia da **Lehoiaren Gela**, baina kontzentratuta bada ere aztarna ugari gordetzen ditu gelaren txoko batean. Bukatze-ko, lehoiaren aztarnekin batera aurkitutako Jaturabe aldeko sarrera txikitik irteteko, **Lehoiaren Gela** gainetik doan galeria batetik igo behar da, bertan, azken metroak katamarka egin ondoren Jaturabeko presatik gora geratzen den koba sarrera txikienetik irteten gara.



12 irudia. Eszentriken galeria. (Aloña Mendi Elkartearen bilduma).



13 irudia. Korkostegi Gela. (Aloña Mendi Elkartearen bilduma).




14 irudia. Arrikrutzeko Galeria Nagusia. (Aloña Mendi Elkartearen bilduma).



15. irudia. 53 Galeria.
(Aloña Mendi Elkartearen bilduma).



16. irudia. Lakuen galeriako sifoi bat.
(Aloña Mendi Elkartearen bilduma).



17. irudia.
Gose Galeria.
(Aloña Mendi
Elkartearen
bilduma).



18. irudia. Maravillas Gela.
Aloña Mendi Elkartearen bilduma).



19. irudia.
Mamut Gela.
(Aloña Mendi
Elkartearen
bilduma)



20. irudia.
Aranzadi Galeria.
(Aloña Mendi Elkar-
tearen bilduma)



21. irudia. Aranzadi Gela.
(Aloña Mendi Elkartearen bilduma)



22. irudia. Leire Galeriko *mud-cup*
conulite formazioak.
(Aloña Mendi Elkartearen bilduma)



Martin Arriolabengoa, Leire Garai, Arantza Aranburu, Juan Luis Arsuaga,
Dalen Love, Asier Gomez eta Mila Algaba lehoiaren gelan.

06

Arrikruzko lehoia

*“Femurraren tamainak esaten digu
Arrikruzko lehoia 250 kiloko animalia zela”*



Lehoiaren jatorrizko burezurra.


Asier Gómez Olivencia

Ikerbasque Research Fellow/Ramón y Cajal
Euskal Herriko Unibertsitatea

Lehoiak milaka urtetan zehar gizakiari lilura sorrarazi dioten izakiak dira. Arrikruzko lehoia aurkikuntza paregabea da, Europako haitzuloetako lehoi (*Panthera spelaea*) osoenetakoa baita. Ale hau ez da handia delako soilik ikusgarria, edo eskeleto ia osoa kontserbatu duelako, baita Europan desagertua dagoen espezie batekoa delako eta mendebaldeko imaginario kolektiboan lehoiek zama sinboliko handia dutelako ere. Horrek guztiak fosil aparta egiten du Arrikruzko lehoia.


Lehoiak

Lehoiak *Panthera* generoko felido handiak dira, lehoiabarrarekin (*Panthera pardus*) eta jaguarrarekin (*Panthera onca*) ahaidetuta daude; baita, neurri apalagoan, tigrearekin (*Panthera tigris*) ere (1. irudia). Lehoi itxurako felido handien fosil zaharrenak duela 3,5 milioi urtekoak dira eta Tanzaniako Laetoli herrian berreskuratu



1. irudia. Felidae familiaren zuhaitz filogenetiko sinplifikatua. Felidoena haragijaleen ordenako familia bat da, duela hogeita hamar bat milioi urte agertu zena. Pleistozenoan, gizakiak hiru azpifamiliatako felidoekin bizi izan ziren: sable horzdun deitzen direnak (Machairodontinae), katuak, katamotzak, gepardoak eta pumak biltzen dituen multzoa (Felinae) eta lehoiak, lehoiabarrak, tigreak eta jaguarrak biltzen dituen multzoa (Pantherinae). Fosil berriei eta ikerketa genetikoei esker haragijale horien eboluzioa xehetasun gehiagoz ezagutzen ari gara.

ziren (Turner eta Antón, 1997). Erregistro fosilean lehoien presentzia handi samarra denez, eta antzinako DNARI buruzko ikerketa berriei esker, felido horiei buruzko irudi konplexuagoa baina aldi berean interesgarriagoa ezagutzen ari gara. Goi Pleistoze-noan zehar (126-12 mila urte) hiru lehoi multzo zeuden; Paleontologiako ikerketa tradizionalak espezie berezitzat jo izan dituzte eta DNA mitokondrialari buruzko ikerketa batzuek ere bat egiten dute ideia horrekin (Barnett et al., 2009). Hiru talde



2. irudia. Hiru lehoi espezieen banaketa geografikoa (Barnett et al., 2009 oinarritua). Baliteke, gaur egungo lehoiak Europan zuen hedadura (Balkanetako penintsulan) haitzuloetako lehoiak desagertu ondorengo izatea.

horiek gaur egungo lehoienak (*Panthera leo*), haitzuloetako lehoiarenak (*Panthera spelaea*) eta lehoi amerikarrarenak (*Panthera atrox*) izango lirateke (2. irudia). Lehoiak Eurasia eta Ipar Amerikako hainbat ekosistematan bizi izan ziren, gaur egun Afrikan eta Indian hartzen dituztenen desberdinak. Izatez, *Panthera* generoko beste espezie batzuk, tigrea adibidez, ekosistema desberdin askotan bizi dira gaur egun: oihan tropikaletan, baso mistoetan eta taigan.

Gaur egungo lehoiak (*Panthera leo*)

Gaur egungo lehoiek (*Panthera leo*) banaketa-barruti oso murrizta hartzen dute tarte historikoarekin alderatuta. Antzina espezie hau Afrika osora (Saharako basamortua eta Afrika erdialdeko eskualde batzuk kenduta), Balkanetako penintsulara, Kaukasora eta Anatoliatik India ia osora doan lurraldera (Ekialde Ertaina barne) zabaltzen zen. Gaur egun, Asian gordeleku txiki batek baino ez dirau Indian (Gir Basoaren Parke Nasionalean), eta Afrikan, Saharaz hegoaldeko lurraldeak soilik hartzen dituzte lehoiek. Tradizionalki lehoia hiru subespezietan (edo beste autore batzuentzat populazioetan) banatu izan da eta horietatik bi desagertuta daude: Atlaseko lehoia (*Panthera leo leo*) eta Lurmuturreko lehoia (*Panthera leo melanochaita*). Atlaseko lehoia, XX. mendearen erdialdean deuseztatua, erromatar garaian ehizatu eta zirku-ikusketan erabiltzen zutena zen. Izatez, berriki egindako azterketa genetikoek adierazi dute Londreseko Dorrean kontserbatutako Erdi Aroko bi garezur -dorre horretako zoologikokoak- subespezie horri zegozkiola. Indian bakarturik dagoen populazioa antzinatean Ekialde Ertainean ehizatua izan zen populazio askoz handiago baten azken lekukoa da, eta Mesopotamiako hainbat artelanean ikus ditzakegu ehiza horren adibideak (3. irudia). Orokorrean kontzientziazioa handiagoa den arren, lehoien populazioak modu lazgarrian jaisten jarraitzen du gizakiaren erruagatik. Naturaren Kontserbaziorako Nazioarteko Erakundearen (IUCN ingelesez) arabera, 1993tik 2014ra




3. irudia. Lehoiaren ehiza. Asurbanipal jauregia. K.a. VII. mendea. Asiria (gaur egungo Irak) © Trustees of the British Museum.

bitartean populazioa % 30etik gora murriztu da, eta murrizketaren joera latz honek jarraitu egiten duela dirudi, bai hedadura aldetik, bai populazioaren aldetik (4. irudia).

Lehoi amerikarra (*Panthera atrox*)

Lehoi amerikarra (*Panthera atrox*) izotz-masen hegoaldera zegoen Iparramerikako zatian bizi izan zen (ikus 2. irudia), eta Goi Pleistozenoan izotzik gabeko korridore batean ere bizi izan zen, gaur egun Kanadako Alberta probintzia den lekuan. Baliteke leinu hau Beringian (Errusiako Lena eta Kanadako Mackenzie ibaien arteko eremua, glaziazio-aldietan, itsas maila jaisten denean, Eurasia eta Ipar Amerika komunikatzen




zituen) bizi zen haitzuloetako lehoien multzo batetik banatzea eta, ondoren, bakar-turik geratzea. Azterketa genetikoek duela 340 mila urte kokatzen dute kladozero honen hasierako dibergentzia eta, haien arabera, gutxi gorabehera duela 200 mila urte izan zuten arbaso komun berriena. *Panthera atrox-en* aztarna baten dataziorik berriena Edmonton-en (Kanada) berreskuratu zuten, eta espezie horrek haitzuloetako lehoiak baino 400 urte gehiago biziraun zuela adierazten du.



Haitzuloetako lehoia (*Panthera spelaea*)

Haitzuloetako lehoia Eurasian eta Beringian bizi izan zen; Eurasian, kalibratutako duela 14.000 eta 14.500 urte BP (*before present*; oraina baino lehen) desagertu zen, eta mila bat urte geroago Alaskako Yukon eskualdean (Stuart eta Lister, 2011). Europako erregistro fosileko lehoirik antzinakoenak Pakefield-eko (duela 700 mila urte) eta Isernia la Pineta (duela 600-700 mila urte) aztarnategietan berreskuratu ziren eta *Panthera*

(*leo fossilis*/*Panthera fossilis* espeziekotzat jotzen dira. Euskal Herrian, lehoirik antzinarakoenak Santa Isabel de Raneron (Karrantza, Bizkaia; 5. irudia) eta Lezetxikin (VIII. maila, Arrasate, Gipuzkoa; Altuna, 1972; 6. irudia) berreskuratutakoak dira, duela 200 eta 300 mila urtekoak (Erdi Pleistozenoaren amaiera). Penintsula mailan, Atapuercan Erdi Pleistozenoko aztarnak aurkitu dira Sima de los Huesos, Gran Dolina (TD10 maila) eta Galería aztarnategietan; aztarna horietako batzuk oso ongi kontserbatuta daude.



5. irudia. Santa Isabel de Raneroko (Karrantza, Bizkaia) Erdi Pleistozenoko lehoiaren matrailezur zatiaren 3D berreraikuntza. Jatorrizkoa Bartzelonako Museu de Ciències Naturals-en dago jasota.



6. irudia. Lezetxikiko (Arrasate) VI. mailako garezurra. Aztarnategi horretako VIII. mailan lehoi aztarnak berreskuratutakoak dira, eta Santa Isabel de Renerokoekin batera (5. irudia) Euskal Herriko zaharrenak dira. (Argazkia Altuna (1972)tik hartuta dago).

Bataz beste, haitzuloetako lehoiak gaur egungo lehoi afrikarrak baino handiagoak dira, eta dimorfismo sexual nabarmena zeukaten. Neurritz handiagoa izateak harripakin handiagoei maiztasun handiagoz eraso ziezaieketela iradokitzen du. Eurasian, haitzuloetako lehoiaren dietan sartzen ziren, besteak beste, zaldia (*Equus ferus*), oreina (*Cervus elaphus*), elur-oreina (*Rangifer tarandus*), orein erraldoia (*Megaloceros giganteus*), bisontea (*Bison priscus*) eta, noizean behin, errizonero iletsuaren (*Coelodonta antiquitatis*) eta mamutaren (*Mammuthus primigenius*) banako gazteak. Badi-ra, haitzuloetako lehoiek bisontek jan izanaren ebidentzia zuzenak (hortz-markak). Adibiderik ikusgarriena Alaskan berreskuratutako bisonte (*Bison priscus*) izoztu bat da; azalean, haitzuloetako lehoiek eraso egin ziotenaren bi ebidentzia mantentzen ditu: batetik, lehoi baten hagin zarrastari baten zatia dauka sartua; eta bestetik, bi zulo ditu, haien arteko distantzia kontuan hartuta lehoi baten letaginenak baino izan ezin daitezkeenak. Ezin izan daitezke beste haragijale garaikide batenak (Guthrie, 1990; Stuart eta Lister, 2011-en).

Isotopo egonkorren azterketaren bidez ere egin daiteke lehoien dietara hurbilketa. Ipar mendebaldeko lehoien lehenengo azterketa isotopikoan desberdindu egin ziren Azken Maximo Glaziarraren (LGM, ingelesezko siglen arabera) aurreko eta ondorengo lehoiak. LGMren aurreko banakoek aldakortasun handiagoa adierazten dute kontsumitutako harrapakinetan, eta horrek bakarka ehizatze joera iradokitzen du; banako batzuk elur-oreinak kontsumitzera oso bideratuta zeuden eta beste batzuk haitzuloetako hartz-kumeak kontsumitzera. Gune geografiko honetan, LGMren osteko lehoiak elur-oreinaren ehizara gehiago bideratutako haragijaleak ziren, eta egile hauek adierazten dute haitzuloetako lehoiaren desagertzea lotuta dagoela Europako zonalde honetatik elur-oreina desagertzearekin. Goyet (Belgika; Wißing et al., 2016) aztarnategiko faunaren azterketa isotopikoan, aztarnategi horretako haitzuloetako lehoiek honoko harrapakinak kontsumituko zituztela jo zuten: haitzuloetako hartzak (gutxi gorabehera % 20), mamutak (% 0-10), errinozero iletsuak (% 5-20), zaldiak (% 5-20), bobidoak (% 20-25) eta elur-oreinak (% 25-28). Datu horiek ezin dira zuzenean estrapolatu Iberiar penintsulara; izan ere, haitzuloetako lehoiak joera handia zuen hainbat espezierenganako, (adibidez elur-oreina) baina horiek oso-oso bakanak dira Iberiar penintsulako erregistro paleontologikoan, Santa Catalina (Lekeitio, Bizkaia; Castaños, 2014) eta Kiputz IX (Murtiku, Gipuzkoa; Castaños et al., 2012) aztarnategietan izan ezik.

Aipatu dugun moduan, Goi Pleistozenoko haitzuloetako lehoiak, batzuetan beste, gaur egungo lehoiak baino handiagoak ziren, baina Erdi Pleistozenoko *Panthera (leo) fossilis* lehoiak eta *Panthera atrox* lehoi amerikarrak baino txikiagoak izango ziren. Europako labar-arte eta arte higikorreko lehoi-irudikapenen azterketetan oinarrituta, haitzuloetako lehoia gaur egungo lehoi afrikarretatik bereizten duen beste ezauzgarri bat izan daiteke gaur egungo lehoi arrek kalparrik ez dutela (edo asko murriztu zaiela). Irudi horien adibide batzuk dira, besteak beste, Chauvet-Pont d'Arc-eko (Ardèche, Frantzia) lehoien panel ikusgarria -non lehoien 10 iruditik gora dauden- Las-

caux, Trois Frères, Combarelles, Laugerie-Basse, Font-de-Gaume, Grotte de la Baume Latrone, Labastide, Roucadour eta Pech Merle. Gainera, arte higigarrian ere adibide asko daude; besteak beste, Hohlenstein-Stadel-eko (Aurignac aldia, Alemania) mamut-bolizko “Löwenmensch” (giza lehoia alemanez) eskultura, 1939an aurkitua eta 31 cm-ko altuera duena, eta La Vache-ko (Magdalen aldia) “Lehoien frisoa” deitutakoa, hezur batean grabatuta dituen lehoi bat mugimenduan eta osorik ez dauden beste bi lehoiren zatiak.

Arrikrutzez gainera (ikus beherago), haitzuloetako lehoiaren aztarnak berreskuratu dira Euskal Herriko aztarnategi hauetan: Abautz (Arraiz, Ulzama, Nafarroa), Aitzbitarte III eta IV (Errenteria, Gipuzkoa), Azoleta (Gorbeia, Araba), Baio (Zestoa, Gipuzkoa), Gatzarria (Ozaze-Zühara, Zuberoa), Santa Isabel de Ranero (Karrantza, Bizkaia), Kiputz IX (Mutriku, Gipuzkoa), Lezetxiki I eta II (Arrasate, Gipuzkoa), Torre (Oiartzun, Gipuzkoa) eta Urtiaga (Itziar, Deba, Gipuzkoa) (Gómez-Olivencia, 2018 eta barruko erreferentziak). Isturitz eta Arberoako haitzuloan (Behe-Nafarroa), Goi Paleolitoko mailetan berreskuratutako hainbat aztarnaz gain, bi felido irudikatuta dituzten Madeleine aldiko arte higigarriko bi aztarna ere berreskuratu dira. Lehenengoa (7. irudia), normalean lehoitzat jotzen dena, elur-orein adarrean egina dago eta hainbat “gezi” ditu grabatuta aurrealdeko eta atzealdeko laurdenean. Jatorrizko irudia galdua dago, baina bada erreplika bat St. Germain-en-Laye-ko museoan (Frantzia; Garate, komunikazio pertsonala). Beste irudia (8. irudia) galdua dago, eta haren marrazki batzuk baino ez dira kontserbatzen (Antón et al., 2009).

2016an, Madeleine aldiko grabatuen multzo garrantzitsua aurkitu zen Armintxe haitzuloan (Lekeitio, Bizkaia), eta haien artean nabarmendu behar dira gutxienez bi lehoiren irudiak (9. irudia); haietako batek buztana altxatuta dauka eta puntako mototsa ere ikusten zaio (10. irudia).



7. irudia. Isturizko (Euskal Herria) haitzuloan aurkitutako elur-orein adarrean eginiko lehoi-estatuatxoaren erreplika.



8. irudia. Isturitzen berreskuratutako bigarren estatuatxo. Estatuatxo hori galduta dago eta aurrekoak ez bezala, ez da erreplikarik ere kontserbatzen. Mauricio Antónen marrazkia Mazak-en (1970) oinarritua (Antón et al., 2009).



9. irudia. Bi lehoi ikus daitezkeen panela (5. eta 11. irudiak). Lekeitio (Euskal Herria).

Argazkia: Bizkaiko Foru Aldundia (<http://web.bizkaia.eus/es/web/area-de-prensa/noticias/-/news/detailView/16877>).



10. irudia. Lehoiaren kalkoa. Armintxe (Lekeitio, Euskal Herria). (Argazkia: Bizkaiko Foru Aldundia) (<http://web.bizkaia.eus/es/web/area-de-prensa/noticias/-/news/detailView/16877>).

Ez dakigu zein izan ziren haitzuloetako lehoia desagertzeko arrazoiak. Alde batetik, espekulatu izan da azken glaziazio amaierako giza populazioaren hazkundeak lotura izango zuela animalia honen desagerpenean. Izatez, gizakia animalia horien desagertzearen eragile aktiboa izan zitekeela proposatu da. Pleistozeno amaierako beroketa klimatikoak Eurasiako lehoien populazioei eragingo ote zien ere kontuan hartu izan da. Beroketa horren ondorioz basoak ugaritu eta espazio irekiak desagertu egin ziren, eta horixe zen, hain zuzen ere, animalia horren ekosistemarik gustukoena.

Arrikruzko lehoiak

Arrikruzko haitzuloak (Oñati, Gipuzkoa) Aizkorri mendilerroan daude eta 10 kilometrotik gorako garapena daukate. Arrikruzko lehoiei buruz hitz egin dezakegu, Arrikruzko haitzuloetako lehoiaren hezurdura osoaz gain, konplexu karstikoko beste galeria batean, Larrayoz galerian, espezie bereko neurri handiagoko beste banako baten femur osoa aurkitu baitzen. Lehoiengatik ospetsuak izan arren, Arrikruzko haitzuloetan fauna ugari berreskuratu zen, eta Jesús Altuna eta Koro Mariezkurrenaren azterketen arabera, gehienbat haitzuloetako hartzarenak dira (*Ursus spelaeus*; Trinidad Torresek aztertutako 1.400 aztarnatik gora), baina baita basahuntzaren (*Capra pyrenaica*) 15 aztarna, eta errinozero iletsuaren (*Coelodonta antiquitatis*) aztarna bat ere.

Arrikruzko lehoia 1966an aurkitu zuten Arantzazuko seminarioko bi ikaslek, Iñaki Zubeldiak eta Manuel Marotok. Hagin bat bidali zioten Jesús Altunari, eta hark haitzuloetako lehoia zela identifikatu eta Zubeldiarekin ateratzen lagundu zuen. 1967ko Munnibe aldizkariko ohar batean, Jesús Altunak hezurduraren jarrera deskribatu zuen: *“gorputzaren eskuineko aldearen gainean etzanda, bizkarrezurra horma estalagmitiko bertikal bati paraleloki zegoelarik. Atzeko hankak elkarrekin eta bizkarrezurrari elkarzut luzatuta; aurreko ezkerreko hanka ere luzatuta eta gorputzaren ardatzari elkarzut, eta eskuineko aurreko hanka ukalondotik tolestuta eta garezurraren azpian kokatuta geratzen zelarik. Matrailezur-sinfisiaren aurretik agertzen ziren falangeak. Burua lurrean jarrita zegoen bi matrailezur-adar horizontalen gainean”*. Ohar horretan bertan aurreratzen zuen banako arra zela eta neurriz oso handia.

1981ean, Jesús Altunak lehoi horri buruzko ikerketa osoagoa argitaratu zuen Alemaniako *Bonner zoologische Beiträge* aldizkarian. Artikulu horretan Larrayozko femurra eta Arrikruzko hezurdura aztertzen ziren. Gainera, azken horren garezurra, matrailezurra eta hortzeria gaur egungo tigre eta lehoi banarekin alderatu zituen.

Arrikruzko hezurdura eta Larrayozko femurra garapena burututa duten banako helduei dagozkie. Gainera, Arrikruzkoaren kasuan, deigarria da eskuineko hiru saihetsetan kailua eratuta zuela; lehoi horrek saihets horiek bizirik zegoela hautsi zituela adierazten du, eta sendatzeko prozesuan zegoela animalia hil zenean.



Jesus Altuna.
(Kutxa Fototeka/La Voz de España bilduma. Paco Mari).

Bonn. zool. Beitr.
32 (1981), Heft 1-2

31

Fund eines Skeletts des Höhlenlöwen (*Panthera spelaea* Goldfuss) in Arrikrutz, Baskenland

von

JESÚS ALTUNA, San Sebastián

Die Entdeckung

1952 führte ein Speläologen-Team der Sociedad de Ciencias Aranzadi (Ruiz de Arcaute & J. San Martín, 1957) eine genaue topographische Aufnahme der Höhle Arrikrutz, Oñate, durch. Obwohl die Speläologen annahmen, daß zwischen der Höhle Arrikrutz und der Karstquelle des Jaturabe eine Verbindung besteht, gelang ihnen die vollständige Durchquerung nicht. Die jungen Sedimente des Jaturabe-Stausees hatten diesen Ausgang verstopft.

1967, 15 Jahre später, konnte eine Studentengruppe von Aranzazu das gesamte Höhlensystem von Arrikrutz durchqueren und in der Nähe des Jaturabe, nicht weit von der genannten Karstquelle, verlassen. Bei dieser Untersuchung fand die Gruppe ein Skelett, „das nicht von einem Bären stammte“. Die Studenten schickten uns einen Molar, und wir bestimmten den Feliden, der Objekt dieser Studie ist. Wir besichtigten den Ort, und obwohl man das Skelett etwas von der Fundstelle entfernt hatte, konnten wir seine ursprüngliche Lage genau feststellen (Abb. 1).

Der Löwe muß durch die Karstquelle des Jaturabe eingedrungen sein, denn der Eingang von Arrikrutz liegt etwa 2 km von der Stelle entfernt, an der sich das Skelett fand, und ist sehr schwer zugänglich.


Das Tier starb an der Stelle, wo man es entdeckt hat. Es lag auf der rechten Seite. Die Hinterbeine lagen nebeneinander und vertikal zur Körperachse ausgestreckt, ebenso das linke Vorderbein. Das rechte Vorderbein war angewinkelt, so daß sich die Hand unter dem Schädel befand. Vor der Kiefersymphyse schauten die Phalangen hervor. Der Schädel war auf die beiden Kiefer gestützt. Seine Medianebene zeigte deshalb senkrecht zum Boden, der in diesem Teil der Höhle ganz eben ist.

Der Schädel und die Vorderextremitäten waren teilweise mit Lehm bedeckt und von einer dünnen Tropsteinschicht überzogen, die Wirbelsäule von den Rückenwirbeln an und der hintere Teil des Skeletts mit seinen Extremitäten dagegen von einer dicken Stalagmitenschicht, die eine Stärke bis zu 10 cm erreichte.

Lotura dago gorputzaren neurri orokorraren eta hezurren neurrien artean. Horrela, gaur egungo felido handien hezurduraren neurriaren eta gorputz-masaren arteko loturari buruzko ezagutzak oinarri hartuta, Arrikruzko lehoien gorputz-masa balioesteko estrapolazioak egin ditzakegu. Arrikruzko eskeletoaren femurra 250 kiloko banako batena izango litzateke. Gaur egungo lehoi arrek 190 kiloko batezbesteko pisua izaten dute (tartea: 150-225 kg; errekorra: 272 kg) eta emeek 126 kilokoa (tartea: 122-192 kg). Larrayozko femurra banako are handia-

J. Altuna

Bonn.
zool. Beit.



Lehoiaren hezurdura topatuzten lekua erakuzten duen kobazuloaren mapa (Altuna, 1981).

go bati dagokio, eta gutxi gorabehera 330 kiloko gorputz-masa kalkulatu diogu, beraz, ar batena dela iradokitzen du. Gorputz-masa hori ohiz kanpoko izango litzatekeen arren gaur egungo lehoi batean, ohikoa da Pleistozenoko Eurasiako lehoi fosiletan.

Hala ere, Arrikruzko lehoien sekretu guztiak argitzetik urrun


gaude oraindik. Izan al zuen loturarik saihetsen hausturak Arrikruzko lehoiaren heriotzarekin? Zergatik arriskatu zen haitzuloaren barrura? Ba al dago lehoi aztarna gehiago Larrayoz galerian? Azterketa paleontologikorako teknika berriek, bestek beste, ordenagailu bidezko tomografia axialak, morfometria geometrikoaren tekni-



Arrikruzko lehoiaren burezurra.



Arrikruzko lehoiaren hortzeriaren xehetasuna.



kek, azterketa isotopikoek eta antzinako DNAREN ikerketek informazio berria emango digute etorkizun hurbilean. Adibidez, Arrikruzko hezurdura eme batena izan zitekeen edo, bestela, bere espezieko beste banako batzuekin alderatuta nahiko txikia zen ar batena. DNA ikerketek lagundu diezagukete banako horien sexua zehazten eta, horrela, haien paleobiologia hobeto ezagutzen. Izatez, lehoi horien kronologia jakiteak lagundu egingo liguke, lehoi espezie honen populazioetan gorputzaren neurrian aldaketak izan ote ziren, leinu genetiko bat baino gehiago izan ote ziren eta haren eboluzioaren historia hobeto ezagutzen ere.



Arrikruzko lehoiaren hezurduraren argazkia.

Pisua: 250 kg

Gorputzaren luzera (buztanik gabe): 2,2 m

Altuera (sorbalde-taraino): 1,2 m



07

Arrikruz-Oñatiko Kobak, gure ondarea gizarteratzeko proiektua

Gure lurra, gure paisaia, gure proiektua

“Estatu mailan haitzuloetako lehoiaren hezurduraren pieza oso bakarra da Arrikruzko hau, eta 53 Galerian, kobara egokitutako pasagunearen barna egiten den bisitan paleontologia aurkikuntzak, lehoiaren eta hartzen erreplikak, geologia forma bitxiak eta bertako mitologia ezagutzen dira”



ARRIKRUTZ

o ñ a t i k o o b a k



Oñatik, Gipuzkoako barnealdean kokatutako herriak, paisaian kalitate handiko elementu interesgarriak ditu, besteak beste, kareharri bikain ikusgarriak daude Aizkorri mendiaren magalean, Arantzazuko Santutegitik gertu; eta lur azpian, Gesaltza-Arrikrutzeko karst-sistema konplexu eta itzelak hartzen dituen 14 kilometroetan, espeleologia-fenomeno eta gune konplexuak. Inguru horretako lur azpia erreka eta estalaktita izugarritz eraikitako galeriak dira, haitzulo horren osaera geologikoaren aberastasun erakusgarri.



Urak bere bidean egindako leize, zulo eta koba ikusgarriak, Oñatiko bailaran edonon. (Geo Aizkorri - Oñatiko Udala).

Arrikrutz-Oñatiko Kobak proiektuak, natur eta kultur ondarearen ezagutza zabaltzea du helburu. Arrikrutz espeleologia, arkeologia eta paleontologia azterketetan aitzindaria da Euskal Herrian. Lehen lanetan, hainbat arkeologia-aztarna aurkitu ziren, eta bertako altxorretako bat haitzuloetako lehoiaren eskeleto osoa da; horrelako lehen aurkikuntza Estatu mailan. Horrez gain, panteren eskeleto-atalak, buru-hezurak eta hartz-aztarnategi ikusgarria ditugu bertan.

